KIROLA: TXIRRINDULARITZARI BURUZKO MAHAI-INGURUA OÑATIN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko abenduaren 17a • V. urtea • 181. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

JUAN JOSE IBARRETXE / LEHENDAKARIA

"Hitza bete dugu, eta planaren eztabaida eta bozketa mahai gainean jarri ditugu" /10-11

DEBAGOIENA

Gabon kanten liburua, 'Asteleheneko Goienkaria'-rekin /5



AITOR LIZARRALDE

Danbakaren zati onena orain hasten da

Debagoieneko musika lehiaketaren lehen fasea gaur, egubakoitza, bukatuko da, gaur joko dute eta geratzen diren lau talde sailkatuek. Horren ondoren, lehiaketaren aldi zirraragarriena hasiko da; izan ere, epaimahaiak hiru finalistak aukeratuko ditu, eta urtarrilean ikusi eta entzungo ditugu horiek berriro. Epaimahaiaren erabakia eta lehiaketaren inguruko iritzi orokorra beste inon baino lehenago *Asteleheneko Goienkaria*-n azalduko da abenduaren 20an. Epaiaz gain, gaurko kontzertuaren kronika, iritziak eta argazkiak ekarriko ditu astekari horrek. Argazkian, gaur joko duen taldeetako bat: Ozen. /13-15

Goienka2a

ASTEKO GAIA: ARRASATEN ZABALDUKO DUTE 2005EAN

Baztertuak enplegatzeko zerbitzua

Debagoieneko baztertuek, edo baztertu izateko arriskuan daudenek, enplegu zerbitzu berria izango dute 2005eko hasieran. Izan ere, giza-talde horiei zuzendutako enplegu bitartekaritza bulegoa zabalduko dute Arrasaten. Kutxak sustatuko du, eta Gureak taldeak gestionatu. Baztertuei eta langile bila dabiltzan enpresei, bioi, zerbitzua emango diete han: lan-poltsa bat osatu, lanbilatzaile bakoitzaren profila egin, enpresekin elkarrizketatu eta bakoitzarendako lanpostu egokiena bilatuko dute.

Zerbitzu berria ez da beste inoren ordezkoa izango, osagarria baizik, eta udal enplegu sailendako tresna izango da. /3

Sakabanaketa salatu eta ibarreko presoak gogoratu ditu Etxeratek

Euskal preso politikoen sakabanaketak eragindako heriotzak salatu zituzten Debagoieneko Etxeratekoek. Orain dela gutxi, semea bisitatzera kartzelara zihoan Karmele Solaguren, Ekain Guerra presoaren ama, auto istripuan hil zena eta, harekin batera, Patxi Cabo eta Marixol Iparragirre izan zituzten gogoan agerraldian. Arrasateko udaletxearen aurrealdean egin zuten prentsaurrekoa. /4

FAGOR
jakina
BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK
Amillaga 10
BERGARA
943 76 03 30

Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Audi

BERGARA

Liburua atera du Miguel Altuna eskolak 75. urteurrenean

Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketa ikastetxeak *Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea* liburua aurkeztu zuen eguaztenean. Ikasle eta irakasle ohiak, enpresaburuak, ikastetxeko zuzendari izandakoak eta beste hainbat herritar izan ziren ekitaldian, tartean, Gorka Etxabe kazetaria, liburuaren egilea. /4

DEBAGOIENA/4-6 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/20-21 • SAILKATUAK/22 • ESKELAK/23 • DENBORA-PASA/24 • TELEBISTA/26

Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

Baztertuendako enplegu zerbitzua izango da ibarrean

Lana bilatzen laguntzeko zerbitzua zabalduko dute urte hasieran

LEIRE KORTABARRIA

Enplegu bulego berri bat zabalduko dute Debagoienean datorren urte hasieran. Oso bulego berezi bat izango da, berritzailea, izan ere, baztertuta dauden edo baztertuta izateko arriskuan daudenei zuzenduta egongo da. Horiei lana bilatzen laguntzea izango du helburu.

Bulegoa Arrasaten ipiniko dute. Kutxa Zeharo du izena zerbitzuak, eta Kutxak sustatu eta Gureak taldeak kudeatzen du, Zeharo fundazioaren bidez. Hainbat elkarteren babesa ere badu, hala nola, Gurutze Gorria, Caritas, SOS Arrazakeria, Proyecto Hombre, eta beste batzuk.

Mariano Cortes Zeharoko arduradunak dioenez, zerbitzu hori ez da beste inongo enplegu zerbitzuren ordezkoa izango, osagarria baizik. "Udal Enplegu eta Ongizate sailekin elkarlana izango dugu, eta eurek gure bulegoak erabili ahal izango dituzte beste baliabide bat bezala", dio.

ASIER GOGORTZA

Etorkinei eta gutxiengo etnikoei, besteak beste, zuzenduko da enplegu bitartekaritza zerbitzua.

HORRELA FUNTZIONATUKO DU

Kutxa Zeharo bulegoak lan bitartekaritza zerbitzua eskaintzen du. Hainbat berme eskaintzen dizkie bai lan bilatzaileari, baita enplegatzaileari ere. Arrasateko bulegoan lau langilek jardungo dute eta funtzionamendua oso erraza da. Lehenik eta behin, izena ematen duten guztiekin lan-poltsa bat osatzen joaten da, eta hori enpresen esku jartzen dute.

Bi zerbitzu klabetan oinarritzen da enplegu zerbitzua: batetik, orientatzaile bat izango da, eta bere egitekoa da lan bila dabilen pertsona bakoitzaren perfila egitea, eta, bere baldintzen arabera, ibilbide bat edo enplegatzaileari emateko informazio pertsonalizatua egitea. Segidan, enpresekin hartu-emanetan jartzen da, eskaintza eta eskaera bat egiteko eta postu bakoitzerako pertsona egokiena bilatzen laguntzeko.

Bigarren figura bat, eta berritzailea, da lan trebatzailearena. Horrek langile berriari laguntzen dio lanpostuari neurria hartzen eta horretara moldatzen. Arrasateko lan trebatzailea Nerea Sanchez izango da. Arduradunek diotenez, "lan trebatzailearen figurak urteak daramatza Gureak taldean, baina orain arte gutxituekin bakarrik egin du lan; orain, lehenengo aldiz, baztertuekin jardungo du".

ENPRESENDAKO AHOLKULARITZA

Enplegu bitartekaritza zerbitzua egingo du, horrenbestez, Kutxa Zeharo proiektuak. Gureak taldearen helburua, 1975ez geroztik, izan da gizarteratze lan bat egitea, eta zerbitzu berri honekin, helburu horren beste ate bat zabaltzen da.

Hala ere, zerbitzua ez da izango bakarrik baztertuen onerako; enpresei ere arreta berezia ematen die. Izan ere, lanpostu bakoitzerako pertsona egokiena aukeratzen lagunduko die, lan-poltsa handi baten bidez; langileak lanpostura egokitzen direla ziurtatzen du, trebatzailearen figuraren bitartez; eta enpresek baztertutako edo arrisku horretan dauden lagunak kontratatzeagatik jaso ditzakeen dirulaguntzez informazioa ematen die.

ONURADUNAK

Baztertuta edo hala izateko arriskuan dauden taldeak

Honako gizataldeei dago zuzenduta Kutxa Zeharo zerbitzua: oinarrizko errenta dutenak, etorkinak, gutxiengo etnikoak, 40 urtetik gorakoak, emakumeak, titulurik ez duten 25 urtetik beherakoak, droga mendekotasuna dutenak, preso ohi langabeak, ezintasunen bat edo %33tik beherako ezintasuna dutenak eta guraso bakarreko familietako kideak.

GIPUZKOAN, LAU BAKARRIK

Arrasateko bulegoa zabaltzen bigarrena izango da

Gipuzkoarako proiektua da Kutxa Zeharo. Lurralde osoan lau bulego ipiniko dituzte, eta Arrasatekoa zabaltzen bigarrena izango da, urte hasieran. Donostiakoa orain bi bat hilabete zabaldu zuten, eta esperientzia ona izaten ari da: "200 bat lagun etorri zaizkigu", dio hango langile Bakartxo Bandresek. Beste bulegoak Eibarren eta Irunen izango dira.

ZEHAROREN FILOSOFIA

Lan bila dabilenari eta enpresari, bioi ematen die zerbitzua

Zeharo fundazioaren zeregina da lan eskatzaileari zein emaileari zerbitzua eskaintzea; horrela, hiru erpineko harremana da. Orain arte gutxituekin aplikatu den filosofia baztertuekin aplikatuko da, hortaz. Bere jardueran, hainbat erakunderen laguntza du –Langai, Egailan eta Inemena, tartean– eta orain udalen inplikazioa lortu gura du.

GUREAK LANTEGIAK IBARREAN

Arrasate eta Bergarako tailerrek automobilgintza arloan dihardute

Jarduera berriak alde batera, Gureak erakundeak bere ohiko lanarekin jarraitzen du. Arrasaten eta Bergaran daude Debagoieneko Gureak bi lantegiak. Gipuzkoako sarea berrantolatu zutenetik ezkero, bi lantegi horiek automobilgintzarako egiten dute lan. 150 bat langilek dihardute. Bergarako tailerra, berriena, asko hazi da bezero eta langile aldetik.

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

• Antzinako egurrezko altzarien zahar berritzea
• Habeen saneamendua
LA VIRGEN DE MURILLO
Bidebarrieta 23, 6.
EIBAR
943 20 16 41

Ordenagailu eskaintza!
689€ + BEZ
Galdetu 2. eskuko ekipoen eskaintzen berri!
Ordaintzeko erraztasunak!
PIV, 3.0/800 MHZ
512 Mb. DDR 400
120 Gb.
VGA ATI 64 Mb.
+ TB irteera
DVD birgrabatzailea
kapa bikoitza
CRT 17 " Monitorea
Arratoia eta tekla optikoak
K INFORMATIKA
Araba etorbidea, 3-2 - ARRASATE - Tel.: 943 79 54 11/Faxa: 943 79 06 28 - kinformatika@bastida.es

GORKA ETXABE

Etxerateko kideek sakabanaketa salatu eta azkenaldian atxilotu dituzten ibarreko kideen gainean jardun zuten astelehenean.

Sakabanaketa salatu eta ibarreko presoak gogoratu zituen Etxeratek

Ibarreko Patxi Kabo eta Marixol Iparragirre presoak izan zituzten gogoan

JON BEREZIBAR

Preso politikoen sakabanaketak eragindako heriotzak salatu zituzten bailarako Etxeratekoek. Azken biktima Ekain Gerra presoaren ama izan da, Karmele Solaguren, eta, harekin batera, Patxi Kabo eta Marixol Iparragirre ere izan zituzten gogoan agerraldian.

Debagoieneko presoen senide eta lagunek Karmele Solagurenen heriotza salatu zuten martitzenean egindako agerraldian eta, era berean, domekan Barañainen egingo zaion omenaldian parte hartzeko deia egin zuten. Jakina denez, Karmele Solaguren, Ekain Gerraren ama, auto istripuan hil zen joan den uztailean, bere semea Alcala-Mecora bisitatzera zihoala. Heriotza horrekin presoen sakabanaketak eragindako hogeita hamaseigarren biktima izan da Karmele.

Prentsaurreko agerraldian Arrasate, Oñati eta Aretxabaletako presoen senide eta lagunek hedabideen aurren salatu gura izan zuten Karmeleren heriotza eta, horrekin batera, Patxi Kabo eta Marixol Iparragirre ere izan zituzten gogoan. Prentsaurrekoan, halaber, dispertsioaren aurkako salaketa egin gura izan zuten Etxeratekoek.

PATXI ETA MARISOL GOGOAN

Patxi Kabo preso antzuolarrari dagokionez, Debagoieneko ospitalean egon da egin dioten ebakuntzarengatik, baina astelehenean bertan eraman zuten Martuteneko espetxera berriz ere. Bere familiak salatu duenez, hiru egun behar izan dituzte gaixoa bisitatu ahal izateko, baina gogorarazi dute Patxik jarraipen mediko aproposa izan duela.

Marixol Iparragirre eskoriatzarraren kasua, berriz, bestelakoa da erabat. Izan ere, kartzelan isolatuta jarraitzen du Marixolek. Prentsaurrekoan salatu zutenez, etengabeak izan dira eskoriatzarrak jasandako mehatxu, jipoi eta irainak. Azaldu zutenez, egoera hori dela-eta egin behar izan du gose eta egarri greba. Marixol joandako hilaren 7an eraman zuten Nantesko kartzelara eta momentuz ez da bere osasun egoeraren berri eman.

Eguaztenean ere beste prentsaurreko bat egin zen presoen egoera salatzeko. Kasu horretan, Jon Agirre preso aramaioarraren herriratzea eskatzeko izan zen. Jonek 24 urte daramatza kartzelan eta zigorraren hiru laurdenak bete ditu dagoeneko. Orain ebakuntza arriskutsua egingo diote eta horregatik eskatzen dute senideek bere herriratzea. Malagako kartzelan dago preso aramaioarra eta tratamendurako euren artean izatea eskatzen du bere familiak.

Sakabanaketak eragindako heriotzak salatu zituzten Etxeratekoek

Batasunak bere ekarpena aurkeztuko du ibarrean

J.B.

Anoetan ezagutzera emandako proposamenaren harira, aurkezpena egingo du Debagoieneko Batasunak. Lehena atzo izan zen Aretxabaletan eta datozen egunetan Arrasaten eta Bergaran egingo dituzte.

Batasuna alderdiak ibarreko hiru herritan aurkeztuko du datozen asteetan azaroaren 14an Anoetako belodromoan egin zuen ekarpen politiko berria. Aurkezpenetatik lehena atzo egin zuen Batasunak Aretxabaletan eta Eider Imaz arduratu zen aurkezpenaz. Hurrengoa Arrasaten izango da, hilaren 20an, San Viator ikastetxeko aretoan, 19:30ean. Jon Salaberriak egingo du berba.

ARNALDO OTEGI BERGARAN

Aurkezpen horietatik azkena Bergaran egingo da. Abenduaren 29an izango da azken aurkezpen hori Novedades aretoan eta Arnaldo Otegi izango da hizlari nagusia 19:00etan hasiko den ekitaldian. Hizlariekin batera, ibarreko ordezkariak ere egongo dira ekitaldietan.

Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea

Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea liburua aurkeztu zuten eguaztenean. Osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zegoela, ikasle eta irakasle ohiak, zuzendari izandakoak, enpresaburuak, eta beste hainbat herritar izan ziren. Jorge Arevalo Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeak Miguel Altuna ikastetxearen lana goraipatu zuen, EAEko ikastetxe onenen artean dagoela esanez. Argazkian, Martin Zabaleta gerra aurretiko ikasleetako bat alkatearengandik liburua jasotzen. /E.M.

Txuringo
Jatetxea

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63

NEGUAN
Igandeetan itxita,
baina enkarguak hartzen dira

- **Menua**
- **Asteburuetan menu berezia**
- **Ehiza**
- **Enkarguz:**
  - **Babarrun-jana**
  - **Arkume errea**
  - **Txerrikumea**

KM 0000
Azken automobilak!!!

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak irauteko eginak

Gabon kanten liburuxka banatuko da 'Asteleheneko Goienkaria'-rekin

Harpidedunek jasoko dute abenduaren 20an, 'Goienkaria'-rekin batera

GOIENKARIA

Gabon kanten liburuxka argitaratuko du datorren astean Goienak, *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedunen artean banatzeko.

52 orriko liburuxka izango da, eskuetan erabiltzeko modukoa, eta Gabonetako 30 kanta jasoko dituena, horietako batzuk ilustrazio eta guzti. Marrazkiak Mikel Arroiabe aretxabaletarrak, GOIENKARIAko ohiko kolaboratzaile denak, egin ditu. 5.000 ale argitaratuko dira eta abenduaren 20ko *Asteleheneko Goienkaria*-rekin batera banatuko dira.

Harpidedun direnek bakarrik jasoko dute liburuxka, harpidedun bakoitzeko bat. Edozelan ere, norbaitek gehiago nahi badu, Goienaren egoitzaren batera hurbildu besterik ez du izango abenduaren 20an, 21ean, 22an edo 23an, bulego orduetan. Hiru eurotan salduko dira liburuxkak.

GOIENKARIA

***Asteleheneko Goienkaria*-rekin batera banatuko da harpidedunendako liburuxka.**

DATORREN ASTEAN URTEBETE

Asteleheneko Goienkaria-k urtebete egingo du datorren astean. Hain justu ere, iazko Santamas egunean, abenduaren 22an, argitaratu zen *Asteleheneko Goienkaria*-ren zero zenbakia. Aurkezpen zenbaki haren ostean, aurtengo otsailaren 19an ekin zion berriro ere *Asteleheneko Goienkaria*-k astelehenero.

Gaur egun 4.300 harpidedun ditu. Oraingo astelehenean banatuko den GOIENKARIArekin batera, Gabon kanten liburuxkaz gain, gutun bat jasoko dute harpidedunek datorren urteko harpidetza kuotaren berri emateko. Datorren urtean 35 eurokoa izango da harpidetza kuota. Urtean 44 zenbaki argitaratuko dira, aurten baino bost gehiago, eta urteko lehenengoa urtarrilaren 10ean argitaratuko da.

Debagoieneko euskara elkarteren bateko bazkideei Goienak hiru euroko deskontua egingo die harpidetza kuotan.

Premia duten presoentzat laguntza eskatu du Espetxe Pastoraltzak

Gabonetako kanpainaren barruan, beharrezko produktuak jasoko dituzte

Arrasateko Espetxe Pastoralak presoei laguntzeko kanpaina abiatu du Gabonetarako. Kartzeletan premiarik larrienak dituzten presoei beharrezko objektuekin laguntzea da egitasmoaren helburua, etorkinak batik bat. Aurtengo kanpaina, bereziki, Martutene, Langraitz eta Basauriko espetxeetakoei laguntzeko izango da baina Erkidegotik kanpoko presoei ere emango zaie laguntza.

Kanpaina astelehenean hasi zuten eta domekara arte luzatuko da. Batez ere premiazko produktuak batu gura dituzte: barruko arropa, higienerako produktuak edota senideei deitzeko telefono txartelak eskatzen ditu Espetxe Pastoralak. Honako leku hauetan jasoko dira: Aretxabaletako Abadetxea eta Arrasateko San Juan, San Frantzisko, Santa Teresa eta La Merced parrokietan eta arratsaldeko seietatik zortzietara bitartean egingo dute.

DEBAGOIENEAN LABUR

Animaliekin bizikidetza egokia sustatzeko plana abiarazi du Arrasateko Udalak

Etxeko animaliekin bizikidetza sustatzeko gidaliburua argitaratu du Arrasateko Udalak. Bertan makina bat aholku ematen dira: maskota nola hezi, kaleko animaliei jaten ez ematea, erantzukizun zibileko aseguruak... Horrekin, abereekiko errespetu eta maitasuna bultzatu gura du Udalak. Datorren astean eta hilabete bukaeran, gainera, informatzaileak ibiliko dira planaren berri ematen kale eta ikastetxeetan.

Egitasmoarekin batera txakurrek kalean kaka egiteko eremuen berri ere eman du Udalak. *Pipi Can* ezagunak eta gorotzak uzteko zakarrontziak ipini ditu Udalak hainbat kale eta auzotan. Horien kokapenaren berri ere esku-orrian bertan emango da.

Bergarako Udalaren kanpaina euskarazko liburuak, diskoak, eta abar bultzatzeko

Liburuak, diskoak, informatika, mahai-jokoak... Gabonetarako askoren opariak izango dira aurten ere eta, gainera, euskarazko kulturaren aldekoa izango da askoren aukera. Horregatik, erosteko orduan laguntza moduan, gidaliburua argitaratu du Bergarako Udalak. Katalogoak euskarazko musika, aldizkari, film, liburu, informatika eta jostailuen gaineko informazioa dakar eta Bergarako eskoletan banatuko da.Halaber, produktuaren deskribapenarekin batera prezioa ere jasotzen da katalogoan. Udaleko Euskara Zerbitzua arduratu da banaketaz eta helburua euskaraz bizitzen laguntzea izango da.

LABekoek metalaren lan hitzarmena eskatzeko auto-manifestazioa egin zuten

Eguaztenean egin zuten LAB sindikatukoek metalaren sektoreko lan hitzarmena eskatzeko auto karabana. Aldarrikapenarekin batera, gainontzeko sindikatuei eta ELAri batik bat elkarrekin borrokara lotzeko deialdia egiten diete. Oraingo astean helarazitako prentsa oharraren arabera, "egungo egoera halakoa izanik, LABek ez du baztertzen hiru urteko iraupena luketen sektoreko hitzarmenak negoziatu ahal izatea: betiere, edukiak sektoreko langileentzako onuragarriak balira". Irailean proposatu zien LABek gainontzeko sindikatuei negoziazioei berrekitea, baina "oraingoz ez dira konprometitu hitzarmen duinago baten borrokan".

Bidezko merkataritza kanpaina egingo dute Hiruatxekoek domekan Aretxabaletan

Aretxabaletako Hiruatx gobernuz kanpoko erakundeak bidezko merkataritza erakusketa eta salmenta egingo ditu domekan Durana kaleko udaletxe zaharreko lokaletan. Ekimen horrekin herritarrak hegoaldeko herrietan duintasunez eta bidezko salneurriaz ordaindutako produktuak ezagutzera animatu gura dituzte. Salmentan jasotako dirua Ekuadorko Kittxuei laguntzeko erabiliko dute. Ibon Antero dago bertan nekazariei bizi baldintzak hobetzen laguntzen. Kanpainarekin 36.000 euro lortu gura dituzte.

Nadal Studio irudi bat eskura dezakezu!

Rafa Oparietako **hileko bezero onenak**
Nadal Studio markako irudi bat jasoko du.

Artisau-lanak dira.
50 eurotik **120** eurorainoko prezioa dute.

Abenduan, hiru bezero onenek
irudi bana jasoko dute.

• Txartelak metagarriak dira.
• Oinarriak eta irudiak dendan bertan daude.

Zatoz! Opari finagorik ez duzu topatuko!

Rafa

RAFA OPARIAK
Eroski merkataritza etxea, 3. lokala
Telefonoa: 943 79 76 03

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a

Euskal Herrian Euskaraz taldeak bihar ospatuko du 25. urteurrena

Iruñeko Anaitasunan izango den ekitaldian inplikazioa eskatuko die politikariei

JON BEREZIBAR

Euskal Herrian Euskaraz taldeak 25 urte bete ditu aurten euskararen alde lan egiten. Urteurren hori dela-eta egindako ikerketa bat kaleratu, eta Iruñeko Anaitasunan ekitaldia antolatu dute. Han izango dira Debagoieneko ordezkariak ere.

Urteurren hau dela-eta makina bat ekitaldi antolatu dute, eta ospakizun nagusia bihar (zapatua) izango da Iruñeko Anaitasuna pabilioian. Debagoienetik autobusak aterako dira.

Gurean, orain dela 10 bat urte sortu zen lehen taldea, Bergaran, eta urte batzuk geroago Arrasate eta Aretxabaletan ere egin ziren taldeak. Batik bat justizia administrazioa eta Arrasateko anbulatorioa euskalduntzeko ahaleginetan dabiltza gaur egun ibarreko taldeak. Izan ere, Bergarako epaitegiko lau epaileek ez dakite euskaraz, eta hori salatu nahi dute, hainbat ekimen abiarazita. Datorren urteari begira ere alor hori jorratzen jarraitzeko asmoa dute, Irati Pagoaga EHEko kideak adierazi zigunez. Otsailean, hain zuzen ere, anbulatorioa euskalduntzeko sinadura bilketa egingo dute.

GOIENKARIA

Azaro amaieran egin zuten Ezabaketa Egun Nazionalean, erdarazko 200 kartel inguru ezabatu zituzten gure eskualdean EHEkoek.

EMAITZA KEZKAGARRIAK

Bailarako ordezkariekin batera, EHEko kideak egongo dira Iruñeko ekitaldian, eta joandako mende laurden honen balorazioa egingo dute. Horren harira, instituzioetan egiten den euskararen erabilpenaren gaineko neurketa egin berri dute eta plazaratutako datuak "penagarriak" direla ondorioztatu dute.

Izan ere, Euskal Herriko erakunde publikoen 36 osoko bilkuratan egin dituzte neurketak EHEkoek, eta aztertutako 2.000 interbentzio baino gehiagotatik, 174 baino ez ziren euskaraz egin. EHEkoek "politikarien utzikeriari" egotzi diote egoera, eta administrazioaren euskalgintzan izandako porrota azpimarratu dute. Argitaratu duten prentsa ohar baten datu esanguratsuak biltzen dira, "kezkagarriak", taldekoen berbetan. Azterketarako Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako legebiltzar eta batzar nagusietan eta zazpi hiriburuetako udaletako osoko bilkuretan 2.000 neurketa inguru egin dituzte, eta, aurreratu bezala, 200era ere ez dira heltzen euskaraz egindako interbentzioak.

Eskualdean justizia administrazioa euskalduntzeko eskatzen du EHEk

Legebiltzarretan euskara bigarren mailako hizkuntza dela ondorioztatu dute ikerketatik

Emaitzak "kezkagarriak" direla ikusita, inplikazioa eskatu diete politikariei

Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako batzar nagusiei eta Gasteizko Legebiltzarrari dagokienez, Bizkaikoan egiten da gehien euskaraz, interbentzio guztien %36. Gipuzkoan portzentajea doi-doi heltzen da %30era eta Araban ez da %4ra heltzen. Eusko Legebiltzarrean, berriz, interbentzioen %25 egin ziren euskaraz eta Nafarroako Parlamentuan %3.

Udaletako osoko bilkuretan egindako neurketetan oraindik ere emaitza baxuagoak jasotzen dituzte. Hala, Iruñeko Udaleko osoko bilkuretan egiten da euskara gehien, baina interbentzio kopurua ez da %5era ere iristen. Bilbo eta Donostiako udalei dagokienez ez dira %1era heltzen eta gainontzekoetan (Gasteizen, Baionan, Donibane Garazin eta Maulen) ez da euskaraz egiten. Datu adierazgarri horiekin balantzea egin dute EHEkoek. Prentsa oharrean adierazten duten moduan, "ezberdintasunak egon arren, guztietan euskara bigarren mailako hizkuntza" dela ikusten dute, eta euren kezka agertzen dute taldekoek; izan ere, "administrazioaren euskalduntzearen gidaritza, besteak beste, politikariena da", eta politikariei benetako borondatea izan eta eredua emateko deia egiten diete.

POLITIKARIEN INPLIKAZIOA

Euskal Herrian Euskaraz 1979an sortu zen, sortzaileen esanetan, "politikariek euskarari lehentasunik ematen ez ziotelako", eta gaur egun egoera aldatu egin dela onartzen badute ere, normalizaziorako urratsak egiteko beharra aipatzen du EHEk. Izan ere, euren ustetan, "herri mugimenduaren lanak, herritarren eskaerek eta presioek eraman dituzte politikariak eta administrazioak hainbat neurri hartzera". Eta honakoa eskatzen diete politikariei: "Administrazioak euskalduntzeko benetako borondatea erakuts dezatela, eta, lehenik eta behin, gaurdanik euskararen erabilera etengabea egin dezatela, euskarari lehentasuna emanez. Bigarrenik, administrazioak euskalduntzeko neurri politiko eta instituzionalak hartzea. Horri loturik, normalizazio egitasmo eraginkorrak bultzatzea, inplikaturiko agente eta pertsona guztien parte-hartzearekin".

Bestalde, Ezabaketa Egun Nazionala egin zuten azaro amaieran. Ekimen harekin, erdarazko 200 kartel inguru ezabatu zituzten gure eskualdean, baina ospakizun egun nagusia biharkoa izango da, Anaitasuna pabilioian. Bide seinaleen ezabaketak ere egingo dituzte, eta kontzertuak eta makina bat ekitaldi ere egongo dira.

Debagoienetik autobusak antolatu dira bertara joateko. Arratsaldeko lauretan irtengo da Aretxabaletatik eta 16:30ean, aurretik Arrasatekoak batuta, Bergarako geltokitik irtengo da autobusa.

MUGIMENDUKO IKURRA

Xabier Zubizarretak diseinatu zuen bere garaian logotipoa

Hogeita bost urte geroago, dagoeneko euskararen aldeko ikurra bilakatu den 'e bikoitz' ezaguna marraztu zuen Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkate ohiak.

Berak kontatu zuenez, errotuladore batekin jolasean zebilela kasualitatez otu zitzaion ikurra eta ordutik hona euskararen aldeko makina bat aldarrikapenetan ikusi ahal izan dugu Euskal Herrian Euskaraz-eko ikur ezaguna.

BAILARAREN BEHARRAK

Ibarreko taldeen lehentasuna, justizia euskalduntzea

Ibarreko euskararen egoera lantzeko orduan alor nagusia justizia izan da. Bergarako epaitegian ez dago euskaraz dakien epailerik, eta h ori salatzeko kanpaina egin zuten uztailean.

Datorren urteari begira hainbat ekimen abiaraziko dituzte. Justizia izango da lehentasuna, baina anbulatorioa euskaldundu eta euskarazko matrikulazioak sustatzeko kanpainak ere egingo dituzte.

POLITIKARIEI ESKAERAK

Euskara normalizatzeko, politikariek eredua izan beharra

Euskararen egoera normalizatzeko neurri zehatzak hartzeko eskaera egiten diete EHEkoek politikariei eta administrazioari orokorrean. Egindako azken azterketaren emaitzekin kezkatuta, udaletan normalizazio plan eta ordenantzen ezinbestekotasuna ikusten dute.
Politikariek eredua izan behar dutela azpimarratzen dute, "eurei dagokieta administrazioak euskalduntzeko gidaritza".

OSPAKIZUN EGUNA

Bihar egingo dute Anaitasunan urteurrena ospatzeko jaialdia

Aldarrikapenak eta festa uztartuko dituzte bihar Iruñeko Anaitasuna pabilioian. Mende laurden honen balantzea egiteko aukera izango da bertan, baina, ekitaldiekin batera, makina bat kontzertu ere antolatu dute EHEkoek, Imuntzo eta Beloki eta Anje Duhalderenak besteak beste. Ekitaldia arratsaldeko seietan hasiko eta 16:30an irtengo da bailaratik autobusa, Aretxabaletatik hain zuzen ere.

BERGARA

BAren auzia dela-eta EAJ-EAren jarrera salatu du Aralarrek

Iñigo Iñurrategi, Martin Etxeberria eta Mikel Etxaniz Aralarko zinegotziek prentsaurrekoa eskaini zuten martitzenean. Udalbatzan Bergara Aurrera plataformari lekua egiteko orduan, EAJ-EA koalizioaren jarrera salatu zuten: "Ez dute erakutsi borondaterik egoerari buelta emateko. Alkateak berak hitza eman zuen BAko ordezkariei deituko ziela, batzordeetan euren partehartzea bermatzeko. Ez du hitza bete, eta tentsioa areagotzen doa". Egoera blokeatuta dagoela esan zuten Aralarkoek. /E.M.

MAIDER ARREGI

OÑATI

Kirol zerbitzu onenaren saria eman diote Oñatikoari

Diputazioak Gipuzkoako kirol zerbitzu onenaren saria eman dio Oñatiko Kirol Zerbitzuari. Gerardo Eskartza Kirol teknikariak azaldu digunez, kirol arloko hamar sari eman ditu aurten Diputazioak eta kirol zerbitzu onenaren saria jaso du Oñatikoak . Saria emateko hartu dituzten irizpideen artean, kirol zerbitzuen eskaintza eta antolaketa eta euskararen aldeko lana daude. Sarituen artean daude, besteak beste, kirol taldeak, kirolariak, epaileak, kirol erakundeak eta entrenatzaileak. Joan den urtean Aloña Mendi Kirol Elkarteak jaso zuen saria ere Diputazioak azken bospasei urte hauetan ematen dituen sari hauetako bat zen. Oraintxe jakin dute aurtengo kirol zerbitzu onenaren saria Oñatik jaso dutela, eta saria bera hilaren 23an jasoko dute Kursaalean. /O.E.

ARETXABALETA

Oinezkoendako bide berria egiten ari dira Errotetxen, errekaren ondoan

Cerrajera Valle Leniz lantegia Errotetxera eramango dutela eta, inguru hori prestatzen hasi dira. Une honetan, oinezkoendako bide berria egiten ari dira, errekaren ondoan. 2005eko lehen sei hilabeteetarako oinezkoendako bidea bukatuta egongo da. Izan ere, lantegia lekuz aldatu baino lehenago, oinezkoendako bide berria errekaren ondoan egingo zela hitzartu zen. Behin bide hori eginda, Cerrajera Valle Lenizen eraikin berria egingo dute bidearen eta saihesbidearen artean. /MARIA AGIRRE

ANTZUOLA

Ate Irekien Eguna ospatuko dute domekan, Herri Ikastetxean

Etzi, domeka, egingo dute Ate Irekien Eguna Herri Ikastetxean, 11:00etatik 14:00etara. Ikastetxea bera ikusteko aukera izateaz gain, umeek egindako lanak eta ikasle ohien argazki zaharrak ere jarriko dituzte ikusgai.

Jardunaldi hori orain egitearen arrazoia da azkenaldian hainbat berrikuntza egin dituztela; batetik, jantokia, eta bestetik, azkeneko solairuan, liburutegia eta ikus-entzunezkoen gela egokitu dituzte; lan horiek hainbat gurasok egin dituzte eta eurei eskerrak eman nahi dizkiete. /A.I.

ARRASATE

Auzitegi Nazionalak Arrasateko bi gazteri zigorra ezarri die

Auzitegi Nazionalak 17 hilabeteko kartzela zigorra eta 12.000 euroko isuna ezarri die Lur Pagoaga eta Gaizka Azkarateri. Epaiaren arabera, bi gazteek mehatxuak egin zizkioten PSE-EEko zinegotzi Matilde Martini. Honek salatu zuen Lur Pagoagak eskuarekin hiltzeko keinua egin ziola orain bi urteko osoko bilkura batean. Eta Gaizka Azkaratek eta Saioa Altzuak, berriz, besteak beste Hiper Eroskin bidea oztopatu ziotela eta mutilak irainak eta mehatxuak egin zizkiola. Saioa Altzua kargu barik utzi du epaileak.

Hiru gazteek ukatu egin zituzten akusazioak. Eta, besteak beste, gertakariak izan zireneko lekukoak eraman zituzten defentsarako, tartean, udalbatzarreko zinegotzi ziren EAko Jose Mari Urizar *Ametzu* eta Amaia Larrañaga, EBko Joseba Ugalde eta orduko alkate Xabier Zubizarreta.

Arrasateko PSE-EEko ordezkari Paco Garciak gogor kritikatu du EAko eta EBko ordezkariek inputatuen defentsan parte hartu izana, "epaiketan gezurrak esan eta zinegotzi sozialista bat mehatxatu zuten ETAkideak defendatzearren". Salatu du, besteak beste, epailearen aurrean hiru lekukoek ez zutela onartu PSE-EEko zinegotziek bizi duten egoera, hau da, mehatxatuta daudela, bizkartzainekin ibili behar dutela eta atentatu bat baino gehiago jasan dituztela. Hori dela eta, Amaia Larrañagaren dimisioa eskatu du Batzar Nagusietako giza eskubideen batzordeko presidente moduan. /U.M.

Zertzelada

Paco Gartziak dio Matilde Martinendako epaiketa kalbarioa izan zela, "lankide izandakoek borreroak babestu eta gezurrak esan zituztelako"

ARAMAIO

Jon Agirre etxeratzeko eta askatzeko laguntza eskatu du haren familiak

Jon Agirreren senideek presoarendako laguntza eskatu dute, herriko medikuak lagunduta. Ebakuntza arriskutsua egin behar diote presoari. Elbarri gelditzeko arriskuaz gain, medikuak dio aurre-ebakuntzarako eta ebakuntza osterako gaixoak behar duen zaintza ezin diotela inongo ospitaletan eman; familiak bakarrik eman diezaiokeela. Gaineratu du, presoak dituen gaixotasun kronikoak zaildu eta bihotzeko bat-edo gerta dakiokeela. Horregatik, familiarekin bat egin eta lehenbailehen Euskal Herriratzea beharrezkoa dela esan zuen. Bestalde, preso 24 urte egin dituela-eta, Jon Agirre askatzeko laguntza eskatu zuen familiak. /U.M.

U.M.

Presoaren senideak, Etxerateko ordezkaria eta Javier España medikua.

ESKORIATZA

Erretiratuek Santo Tomas askaria aurreratu, eta atzo elkartu ziren

Olazar erretiratuen elkarteko kideek Santo Tomas txistor-jana egin zuten atzo, eguena, eta giro polita sortu zuten. Hilaren 22an Arrasatera joan gura dutelako aurreratu zuten hitzordua. Izan ere, 20 urte dira txistorra jateko elkartzen direla. Gainera, batzordea eraberritzeko ere aprobetxatu zuten atzo.

Azkenik, erretiratuen etxeko bazkide kuota eguneratua duten kide guztiek 55.292 zenbakira euro bat jokatuko dute abenduaren 22ko zozketan; hala jakinarazi dute Olazarko ordezkariek. /Z.V.M.

ELGETA

Gabonetako herri jaialdian hainbat taldek abestuko du Korrikaren alde

Abenduaren 30ean herri jaialdia izango da Espaloian. Hainbat herritarrek jardungo du kantari koadrilak eta elkarteak ordezkatuz. Eskolako umeek eta koruak ere abestuko dute. Jaialdia Jon Anduezak gidatuko du eta musikaz Gardoki arduratuko da. Rantxerak, euskal kantak eta abesti modernoak entzungo dira. Herri jaialdia izanik elgetarrei joateko deia egin diete antolatzaileek. Sarrera hiru euro izango da eta jasotako diruarekin Korrikako kilometroak erosiko dira. /I.A.

GATZAGA

Gazteentzako ekimenak prestatu dituzte, batez ere, Gabonetarako

Askotariko ekimenak antolatu dituzte datozen asteotarako Gatzagan. Gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita ludotekako lagunen antzerkia egongo da ikusgai kultura etxean. Bihar, Gabon giroan sartzeko, 11:00etan elkartuko dira herriko plazan jaiotza jartzeko.

Abenduaren 24an baserriz baserri kantuan joango dira, guraso elkartetik aditzera eman dutenez. Eta elkarrekin bazkalduko dute ondoren. Gasteizera ere joango dira opor egun horietan Leintz Gatzagako lagunak. /Z.V.M.

Gutunak

'Euskara plazara'

Arizmendi Ikastolak egiten duen hausnarketa geuk ere egiten dugu. Hainbat urtetan ikastolan euskaldunak egin eta egin ari dira, baina gero kaleko erabileran ez da ia igartzen. Euskararen erabilera ez da indartuko ikastolatik kanpo eremu berriak irabazten ez baditugu. Gure seme-alabentzako euskara ikastolako hizkuntza besterik ez da.

Lerro xume hauen bitartez dei egiten diet Arrasateko euskara eta kultur esparruko bultzatzaileei ez lokartzeko: GOEINKARIA, Goiena Telebista..., ez direla nahikoa eta euskara plazaratu egin behar dela.

Euskarak eta euskal kulturak bere indarrak garatzeko ingurumari egokia behar dute. Arrasaten gune erreferentzial bat behar dugu, non gure nortasuna sakondu, gure hizkuntza landu eta gure kultura indartu egingo diren. Euskal Herrian azkeneko aldian helburu hauek bete ahal izateko gune bat berrindartu da: Kafe Antzokia. Bilbon, Ondarroan, Elgetan eta, azkena, Durangon zabaldu dute. Arrasaten gauza askotan eredu izan gara, baina orain gure satisfazioan lokartuak gaude.

Hemen, gai honetaz lan egiteko hiru eragile garrantzitsu ikusten ditut: AED, Arizmendi Ikastola eta kultur eta euskara eragileak (AEK, Portaloi elkartea...). Hiru talde hauen elkarlanetik egitasmo sendo bat sortu behar da instituzioei (Udalari, Mankomunitateari, Foru Aldundiari...), MCCri, unibertsitateari eta mezenas pribatu euskarazaleei aurkezteko. Orain da momentua, eta Arrasatek merezi du.

ALEJANDRO ALTUNA
Arrasate

Agur erdi

Eta joan da, Sofia bere traje moreaz Madril aldera. Garaiako lehen harria jarri zuen sinbolo espainiar errepresioaren sinbolo gorenak. Traje morea, traje urdinak, beltzak eta berdeak ere baziren haren inguruan… herri guztia setiatzen. Herritarrak isildu nahian edo. Karparen ondoko megafono bat isildu omen zuten edo. Ez baitzuen inperioaren errege txit gorenarenganako laudoriorik zabaltzen.

Negozioaren usaina, errepresio metalizatuaren babespean. Autonomia erkidegoko poliziak Espainiako segurtasun indarrei esku emanda lan zintzoa egin zuen egun handi hartan, baita aurrekoetan ere. Batez ere Uribe auzoko biztanleek pairatu zuten haien jarraipenen itzala. Langile arraro gehiegi azkenerako isiltzerik izan ez zuten sekretua estaltzeko.

Ez zuten txaloka aritu ziren lau katu haien adierazteko askatasun bera izan kalean erregearen etorrera salatzeko elkartu ziren ehunka herritarrek. Diplomazia zuria ardi beltzentzako. Erregearen bisitak errepresio mota desberdinak ekarri zituen geurera: guztiok jasan genuena (kontrolak, jarraipenak, mehatxuak…) eta errepresio makilatua (zenbaitek beren lanean jasan zutena).

Garesti irten zaigu Zarzuelako gonbidatua. Eta merke saldu dute herri oso baten izaera, inoren iritzirik galdetu gabe. Isiltasuna, zentsura eta errepresioa.

Espainiako militarren buruak bi gortina zabaldu zituen Arrasaten. Domotikan asmatua izango dute bakarrik zabaldu ahal dituen sistemaren bat… A ez, baina interes ekonomikoak ez du duintasunaz ulertzen!

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA
Debagoiena

Igeriketako zerbitzuak falta dira

Gure herria zerbitzu askotan nahiko herren dago. Beti gaude gure industriekin, MCCrekin, unibertsitatearekin, eta abar. Baina kirol eta kultur arloetan hutsune nabariak ikusten ditugu. Igeriketan, adibidez, Arrasateko kiroldegian, ume txikientzako igeriketa ikastarorik ez dago. Hori dela-eta, aurten, 20 arrasatear txiki Oñatira eramaten dituzte. Ikastaro horietan ume txikiok motrizitatea, dortsal flotazioa (oso garrantzitsua igerileku batera jausten badira) eta gurasoarekiko harremanak lantzen dituzte. Arrasaten zergatik ez dagoen ez dakigu, baina beti bezala diru kontuak izango dira.

Igeriketarekin lotuta, era berean azpimarratu nahi dugu Arrasaten ez dagoela igeriketa talde federaturik. Gazteen osasunerako kirol hori oso komenigarria denez, eta gure herriak beste arlo batzuetan duen garapena kontuan hartuta, igeriketa eta aisialdia nahiko abandonaturik daudela uste dugu.

ALEJANDRO ALTUNA
Arrasate

Zorionak, Txantxiku!

Bejondeizuela, Txantxiku Ikastola osatzen duzuen guztiei. Lortu duzuen Zilarrezko Q-a dela-eta. Horren bitartez errekonozitzen da eta onartu Txantxiku Ikastolak daraman ibilbidea eta konpromisoa, etengabeko prestakuntzan dabilela eta hala segituko duela. Txantxiku Ikastolako talde osoa, zuzendaritza buru delarik, animatu nahi dut hasitako bidea jarraitzen (lidergoa, giza baliabideak, estrategia, prozesuak, eta abar).

Bikaintasun saria lortu duzue. Jakina, ez zen izango lan erraza, hamaika buruhauste, batzar, zalantza, nork bere denbora, eta abar…

Bikaintasun sari horrek konfiantza handia ematen dio bezeroari. Esan beharra dut guraso bezala, aspaldidanik, eta nik bezala beste hainbat gurasok, Txantxiku Ikastolako profesionalengan konfiantza handia daukagula. Guk sari hori eman genizuen egunero gure seme-alabak ikastolara bidaliz, eta ahal den neurrian parte hartuz. Esan beharra dago sari hori merezimendu osoz eman zaizuela (lortu) eta ikastolak gizartearekiko duen konpromisoa era horretan eta publikoki errekonozitzea beharrezkoa iruditzen zaidala.

Garai batean nork pentsa zezakeen Txantxiku Ikastola maila horretara iritsiko zenik? Bide batez, aprobetxatu gura dut esateko oso gustura gaudela ikastolak eskaintzen digunarekin, eta ikastolarengandik jasotzen dugun tratuarekin, bai gure seme-alabak baita gurasoak ere. Hurrengoan urrezkoa!

GURASO BAT
Oñati

Gogoetak eta galderak

Bizitzea tokatu zaigun garaia garai bizia da, ohiturak azkar aldatzen diren garaia; baina hala ere badira bere horretan jarraitzen duten zenbait gauza. Eguberrien atarian gaude, eta guretzat esanahi berezia daukate egun horiek. Egun horiek jokabide adiskidetsua merezi dute, laguntasunak gailendu behar du. Gure arteko talderik sentikorrenari (haurrak) baikortasuna eta esperantza helarazten dion Olentzero bezalako jaiak gutako bakoitzari barruan daukagun onena atera beharko liguke.

Eguberrietan hain gurea den Olentzero bere musika eta kantuekin aterako ez balitz, zaila izango litzateke ulertzea zergatik ez den atera. Ez dut ulertzen nola jai herrikoiak gehiago lotzen diren bultzatu, sustatu edo antolatzen dituenarekin, eskaini nahi denarekin (haurrei, hau da, etorkizunari begira balio eta baikortasun gehien behar dutenei erantzutea) baino. Sortzen zaigun galdera hauxe da: jai herrikoiek osatzen duten ondarea talde edo instituzio berezi batena al da?

Azter dezagun orain parte-hartzearen kontzeptua eta zehazkiago esanda kultur taldeen parte-hartzea. Korporazio hau, eta zehazki Kultura batzordea, ziur dago oro har kulturaren aldeko apustu berezia egin behar genuela eta egiten ari garela beste askoren laguntzarekin. Horretan ari garela adierazten duten froga garbiak daude: zinema, antzerkia, musika, kultura-etxea, hainbat motatako azokak dauzkagu eta ezohiko gertaerei baldintzarik gabeko laguntza ematen diegu. Hori guztia egiten dugu Arrasaterentzat eta Debagoienarentzat laugarren konurbazioaren label hori lortzeko.

Alabaina, Udalaren laguntza eta babesa jasotzen duten kultur taldeek batzuetan ez dute parte hartzen. Zein da kultur taldeen eginkizuna? Beraien gaia den kulturaz arduratzea, kultura sortu eta hedatzea al da? Beraien herriarentzat esanguratsuak diren uneetan kultura eskaintzea al da haien betebeharra? Bai, hala da, eta are gehiago antolatzaileek baino garrantzi handiagoa daukaten Olentzero bezalako egun kuttunetan.

Galdera horientzat guztientzat guk daukagun erantzuna garbia da, baina edonola ere guztiok galdera horien inguruko zentzuzko gogoeta egitea nahiko nuke.

INES ALDAI (ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA ETA KULTURA SUSTAPENEKO BATZORDEBURUA)
Arrasate

Presoei lagundu

Beste urte batzuetan bezala, eta elizbarrutiaren ildoari jarraiki, Gabon hauetan ere kanpaina bat abiatuko dugu espetxean dauden presoei laguntzeko. Aurten, arreta berezia eskainiko diegu etorkinei, premia handien daukaten kolektiboa izateagatik, eta horietako batzuk, gainera, egoera larrian daudelako, ez daukatelako laguntza eskainiko dien seniderik.

Kristau komunitatea, eta gizarte osoa oro har, ezin da bihozgabea izan arazo larri horren aurrean. Ezin ditugu ahaztu eta beti izan behar ditugu gogoan, zigor bat betetzen egon arren, gizaki orok dituen eskubideak eta duintasuna dituztelako.

Aurtengo kanpaina Martutene, Langraitz eta Basauriko espetxeetan daudenei laguntzeko izango da, baina baita Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko espetxeetan dauden eta premia larrian dauden presoei ere. Urtero bezala, batuko ditugu barruko arropak, norberaren garbiketarako produktuak, senideei telefonotik deitzeko txartelak…

Kanpaina abenduaren 19ra bitartean izango da, hortaz, oraingo domekan amaituko da, eta produktuak Aretxabaletako abadetxean, eta Arrasateko San Juan, San Frantzisko, Santa Teresa eta La Merced parrokietan jasoko dira. Ordutegia izango da 18:00etatik 20:00etara.

Aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkiegu baztertuta dauden kolektibo horiei laguntzeko kanpainan parte hartuko duten guztiei. Horren premia larriak dituzten pertsonekin ere gogoratu nahi dugu Gabon jai hauetan.

ESPETXE PASTORALEKO BATZORDEA
Arrasate

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ABENDUAREN 18AN

JAI HERRIKOIEN ALDE

11:00: Etxafuegoak
11:30: Diana Arrasateko musikarien eskutik
12:00: Kalejira herrikoia parte-hartzaile guztiekin
13:00: Herriko plazan txistorra eta sagardoa
14:00: Txerri dantza herriko plazan
16:00-18:00: Loixe zeramika elkartearen eskutik, haurrentzat buztinarekin gozatzeko aukera herriko plazan
18:00: Herriko plazan koadrilentzat herri kirolak. Bitartean bertsolariek giroa alaituko dute.
18:30: Herriko plazan txistorra eta sagardoa
19:30: Txerri dantza herriko plazan

ANIMATU ETA JANTZI!!!

Sinatzaileak:
- Agako
- Txikitxu Arrostaitz dantza taldea
- Arrasate trikitixa eskola
- ARTE Arrasateko taila elkartea
- AEDko bertso eskola
- Lore Gazteak dantza taldea
- Ttakun Arrasateko txalapartariak
- Arrasateko txistulariak
- Loixe zeramika elkartea
- Arrasateko kiliko eta erraldoien konpartsa
- Santamas Komisiñua

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a

Juan Jose Ibarretxe

LEHENDAKARIA

"Hitza bete dugu, eta eztabaida eta bozketa mahai gainean daude"

Bergarako batzokiaren 100. urteurrenaren ospakizunaren barruan, Euskadi Buru Batzarrak bilera egin zuen bertan astelehenean, Santa Luzia egunean. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria ere hantxe izan zen, eta bilera amaitu eta Bilbora abiatu aurretik, ordu laurden eskaini zion GOIENKARIAri elkarrizketa egiteko. Proposamenaren gainean hasi ginen berbetan.

LEIRE KORTABARRRIA

OIHANA ELORTZA

Abenduaren 30ean bozkatuko dute Legebiltzarrean zuk egindako proposamena. Zer gertatuko da ez bada aurrera ateratzen?

Lehenik eta behin, oso garrantzitsua da eztabaidatzea eta bozkatzea proposamena. Hil honen 30ean, mahai gainean egongo da aukera gizarteari erantzuteko; orduan ikusiko da argi eta garbi gizartearen aurrean nortzuek ematen dioten hitza euskal gizarteari eta nortzuek esaten dioten ezetz. Hori da garrantzitsuena.

Beste alde batetik, oso garrantzitsua da bizitza honetan hitza betetzea. Nik *kontratu soziala* esaten diodana egin nuen euskal gizartearekin duela lau urte, eta guk gure hitza bete dugu; mahai gainean jarri ditugu eztabaida eta bozketa. Eta gero, gerokoa. Lehenengo, aukera eman eztabaidatzeko eta bozkatzeko, eta etorkizunean ikusiko dugu zer gertatzen den.

PP eta PSOE alderdiek esan dute ezezkoa bozkatuko dutela. Batasunak dio alde batekin ados dagoela baina bestearekin ez. Batasunak dauka giltza?

Ez. Batasunak egin dezala nahi duena, eta gero azaldu beharko dio gizarteari zergatik esan dion baietz edo zergatik esan dion ezetz. Horren harira, guk argi eta garbi daukagu baietz esan behar diogula euskal gizarteari eta hitza eman behar diogula euskal gizarteari. Badakizu gehiengo absolutua behar dugula proposamena onartzeko, eta ezezkoa edo abstentzioa bozkatzen dionak, hark erantzun beharko dio gizarteari. Guretako oso garrantzitsua da eztabaidaren aurrean posizio garbia izatea eta gero gizarteari azalpenak ematea. Jakinekoa da PPren eta PSOEren posizioak zeintzuk diren eta ikusiko dugu zer gertatzen den, baina haiek azaldu behar dute euren posizioa eta eurek eman behar dizkiete azalpenak herritarrei.

Proposamen horretan puntu batzuetan zuzenketak egiten aritu da lantaldea bi hilabetean. Horietako puntu bat izan da lehendakariaren izendapenean Erregeak ardura izan behar duen edo ez. Zela gelditu da, azkenean, zuzenketa hori?

Ez dakit. Orain ari dira eztabaidatzen Legebiltzarrean. Baina bueno, gure testuan argi eta garbi jasotzen da izendapena norendako den, Erregearendako. Guk horrela jarri genuen, eta orain eztabaidatzen ari gara Legebiltzarrean; eztabaida egin ostean erabakiko da zein den azken postura.

Ze irakurketa egiten diozu Batasunak Anoetan egindako proposamenari?

Zilegia da. Askatasun osoz proposa dezakegu nahi duguna, eta, horren harira, esan genien zilegia zela; puntu batzuk positiboak zirela eta beste batzuk ez, baina proposamena bera zilegia zela. Baina egun hauetan garbi gelditu da momentu honetan zalantzan dagoela proposamen hori, batez ere, ETAren jarrerarekin. Batasunak esan zuen ezker abertzalearen oso-osoa zegoela proposamenaren atzean. Argi eta garbi, horretarako behar-beharrezkoa zen ETAren su-etena, behin betiko su-etena, gainera, baina azken egun hauetan ikusi dugu atentatuak, bonbak eta denetarik izan ditugula, eta hori kontraesan handia da, oso handia, gainera. Batasunak egindako proposamena zilegia zen, baina ETAren jarrerarekin galtzen ari da bere zentzua.

Orduan, Arzalluzek ez bezala, zuk ez duzu uste PSOEk eta ETAk berba egin dutenik.

Ez dakit, eta nahiago dut, gainera, gauza horiek ez komentatu batez ere komunikabideetan. Uste dut garrantzitsua dela gure

LEHENDAKARIAREN IZENDAPENA ETA ERREGEA

“Gure testuan argi eta garbi jasotzen da izendapena norendako den, Erregearendako. Orain Legebiltzarrean ari dira eztabaidatzen, eta eurei dagokie erabakia hartzea”

HILAREN 30EAN BOZKATUKO DUTE PROPOSAMENA

“Gehiengo absolutua behar dugu proposamena onartzeko, eta ezezkoa edo abstentzioa bozkatzen duenak, hark erantzun beharko dio euskal gizarteari”

BATASUNAREN PROPOSAMENA

“Batasunak Anoetan egin zuen proposamena zilegia da, baina ETAren jarrerarekin galtzen ari da bere zentzua. Azken atentatuak kontraesan handiak dira”

PSOE-REN ETA ETA-REN ARTEKO PAKTUA

“Ez dakit harremanik duten edo ez, baina oso garrantzitsua da gure artean politikoki hitz egitea. Elkarrizketa da bide bakarra gauzak konpontzeko eta arazo politikoak gainditzeko”

artean hitz egitea, baina gehiago maila pribatuan eta gutxiago komunikabideetan, eta pentsatzen dut diskrezioz jokatu behar dugula. Ez dakit PSOEk eta ETAk harremanik duten edo ez, ez dakit.

Eta izan behar dute?

Nik uste dut oso garrantzitsua dela gure artean hitz egitea, baina politikoki hitz egitea alderdien artean. Batasunak egindako proposamenean argi eta garbi utzi zuen Batasunak berak alderdiek barruan hitz egin behar dutela. Hori argi dago, eta horrekin lotuta, EAJren, PSOEren eta Batasunaren arteko hartu-emanak eta elkarrizketak behar-beharrezkoak dira. Elkarrizketa da bide bakarra gauzak konpontzeko eta arazo politikoak gainditzeko.

Maiatzean izango dira hurrengo hauteskundeak?

Ustekabe barik, bere garaian egingo ditugu hauteskundeak.

Gauzek dauden bezala jarraitzen badute, Batasunak ezin izango du datorren urteko hauteskundeetan parte hartu.

Nik baietz espero dut. Zergatik ez? Ni baikorra naiz bizitza honetan eta nik publikoki esan nuen normalizazio politikoa izateko indar politiko guztiok egon behar dugula politikaren merkatuan.Eta nik pentsatzen dut oso garrantzitsua dela Batasunak ere parte hartzea datozen hauteskundeetan. Azken batean, herritarrek legeztatzen edo legez kanporatzen dituzte alderdiak euren botoekin. Beharrezkoa da indar politiko guztiak egotea.

Kultura bultzatzeko plana jarri du aurten Jaurlaritzak. Orain, Kultura Sailak futbol talde bati eman dio dirua kamisetan propaganda jartzearren. Datorren urteko aurrekontuetan utziko duzue, ba, herri komunikabideendako dirua?

Haiek esan dute ez dela propaganda, baizik ohore handia, eta baita guretako ere. Oso garrantzitsua da Euskadiren irudia eta gure irudia agerian ematea munduan zehar. Azken batean, gu herri txikia gara eta oso garrantzitsua da guretako Euskadi herri langile eta bakezale bezala ezagutzea munduan zehar.

Baita gure identitatea defenditzea ere. Etorkizuna defendatzeko ere oso garrantzitsua da gure identitatea defenditzea munduan zehar, eta, horren ildora, uste dut posiblea dela kultura unibertsal hori onartzea eta beste alde batetik, geurea gehitzea. Hori da bide bakarra gauzak egiteko mundu honetan, eta posible dela uste dut.

“Sakabanaketarekin bukatzea beharrezkoa da, guztiondako direlako giza eskubideak”

Nolakoa da PSOEren jarrera, *talantea*?

Umoreaz gain, edo irribarreaz gain, zertxobait gehiago behar dugu gauzak aurrera ateratzeko. Eta, horren harira, nik Zapaterori eskatu diodana da ausardia politikoa edukitzea. Eta eduki egin behar dugu.

Ausardia politikoa eduki behar dugu akordio politikoak lotzeko. Beraz, *talanteaz* eta irribarreaz gain zertxobait gehiago behar dugu gauzak konpontzeko.

Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako presidentea denetik, harremanak errazagoak dira PSOErekin?

Lehen ez zegoen, eta orain hitz egiten dugu.

Noizean behin esaten diot neure buruari: orain, hitz egiten dugu bakarrik eta poz-pozik gaude, eta berehala pentsatzen dut zein gaizki egon ginen lehen, zein gaizki. Izan ere, hitz egiten ez badugu, nola konpon ditzakegu gure arazoak? Momentu honetan, bidearen hasiera dira elkarrizketak, besterik ez.

Joan den astean hil zen istripuz beste preso baten senide bat. Noiz amaituko da sakabanaketa?

LEIRE KORTABARRIA

Behar-beharrezkoa da horrekin bukatzea. Azken batean, giza eskubideei buruz hitz egiten dugunean, ikusi behar dugu banaezinak direla giza eskubideak, eta giza eskubide guztiek guztiondako izan behar dutela, nahiz eta preso egon. Esaldi hori ez da lelo soil bat, giza eskubideak guztiondako dira, beraz, zerbait gehiago ere egin behar da. Beharbada jakin behar dugu besteen eskubideak ere onartzen, hori baita hasiera.

Ezinezkoa da familiak horrela segitzea. Ezinezkoa da giza eskubideak urratzea; giza eskubideak guztiondako dira.

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I.MUSIKA LEHIAKETA

KONTZERTUA

Elgetako
Espaloia Kafe Antzokian
Abenduaren 17an (barikua)
22:30

Turboamor
(Arrasate)

Ozen
(Arrasate)

Stukas
(Bergara)

Sharon Stoner
(Arrasate)

gaztekutxa
Goienkaria
espaloia
ARRASATE IRRATIA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Elgetako Udala
Goiena.net
Goitb
jakina
Goienkaria
Carrión música
MEMESA
IRUDI SPORT

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a

Gandarias: "Merckx-ek hamar franko ikusi eta esprinta egingo luke"

Makalena elkarteak antolatuta, ziklismoaren gaineko mahai-ingurua egin zuten eguaztenean

XABIER URTZELAI

Makalena elkartekoek badakite 25 urte nola ospatu; eguaztenean beste mahai-inguru bat egin zuten, oraingoan ziklismoaren gainean berba egiteko. Ehun urte egiten dituztenean hankaz gora jarriko dute Oñati.

Ziklismoaren gaineko berbaldian argi geratu zen, orain dela hilabete batzuk pilotaren gainean egin zuten mahai-inguruan moduan, ez dagoela karakter handiko kirolari beterano bat ekartzea modukorik. Oraingoan, Andres Gandarias txirrindulari ohia ibili zen eguazten ilunkera *berotzen*. Eta hori, mahaiaren bueltan zeuden beste txirrindulari batzuk ere ez direla berba egitea kosta egiten zaien horietakoak; galdetu Irizarri, bestela. Gandariasekin batera egon ziren Mikel Lizarralde txirrindulari ohia, Haimar eta Joseba Zubeldia anaiak (Euskaltel), Eneritz Iturriaga (Aurora), Gorka Arrizabalaga (Orbea) eta Markel Irizar (Euskaltel). Pena izan zen Jon Odriozolak ezin izan zuela berbaldian egon, Espainiako Itzulia aurkeztu berri, Madrilen zen-eta.

Matxain ibili zen moderatzaile lanetan, eta txirrindularitzaren lehena, oraina eta geroa izan zituen ardatz. Mikel Lizarralde hasi zen berbetan: "Argi dago ziklismoa asko aldatu dela. Guk ez genituen gaur egun dituzten medioak. Taldeko medikua, adibidez, Madrilen egoten zen, eta Real Madrilgo mediku bera zen. Haraino joaten ginen, eta medikua gurekin egon aurretik Madrilgo jokalari guztiekin egoten zen lehenengo, eta gu zain. Amateur mailan lan egiten nuen egun erdiz, eta profesionaletan egin nuen urtean nahiko miseria pasatu nuen. Jarraitzeko beste urte bat neukan, baina uztea erabaki nuen. Ez zuen merezi. Nire atzetik etorri ziren txirrindulariak hasi ziren ondo irabazten".



XABIER URTZELAI

Argazkian, berbaldiko protagonistak eta etorkizuneko kazetari gaztetxoak.

"Ziklismoa asko aldatu da, baina gizarte osoa aldatu den moduan"

"Gehiago irabazteaz gain, ziklistek proba gutxiagotan hartzen dute parte"

Andres Gandariasek ere lehengo kontuak ekarri zituen gogora: "Askoz ere gehiago irabazteaz gain, gaur egun, txirrindulariek guk baino proba gutxiagotan hartzen dute parte. Guk urteko lehenengo lasterketarekin hasten genuen denboraldia, eta guztiak egiten genituen, ez orain bezala". Segituan gogorarazi zion *Matxain*ek, baina, eurek denboraldia amaitzen zutenean ehizan joaten zirela, eta Haimar Zubeldiak, adibidez, nahiko komeria izan dituela ezkonbidaian joan ahal izateko.

UME ASKO BERBALDIAN

Ekitaldiaren amaieran, txirrindulariek gaztetxo talde batek prestatuko galderei erantzun behar izan zieten. Gero, hainbat sari banatu zituzten. Ander Kortabarriarendako izan zen Euskaltelek elastikoa, eta Julen Gaztañedak Oñatin amaituko den Euskal Herriko Itzulia auto barrutik ikusi ahal izango du.



ANDRES GANDARIAS

TXIRRINDULARI OHIA

Beste garai batzuk dira, baina lehen galantak egiten genituen. Tourreko azkenaurreko etapan 350 kilometro sartzen zizkiguten, hankek atseden har zezaten, edo egun baten hiru etapa egiten genituen. Tourra irabazteko ez da nahikoa sasoian egotea, zorte handia behar da.



HAIMAR ZUBELDIA

EUSKALTELEKO TXIRRINDULARIA

Gaur egun gertatzen da gurasoek ez dutela gura euren seme-alabak errepidean ibiltzerik, eta erosoagoa da futbolean jokatzea. Alde horretatik, etxean laguntza handia izan dugu guk. Txapeldunei dagokienez, ezin dira alderatu Armstrong eta Merckx, garai ezberdinekoak direlako.

ENERITZ ITURRIAGA

AURORAKO TXIRRINDULARIA

Neskak animatu gura ditut txirrindularitzan hasteko. Kirol gogorra da, baina poztasunak ematen ditu. Egia da Somarriba dela-eta besteok ez dugula protagonismorik izan, baina Joanek egindakoa ere ez da askorik baloratu. Orain niretako egingo dut lan, eta horrek asko balio du.



MARKEL IRIZAR

EUSKALTELEKO TXIRRINDULARIA

Amateur mailan uste nuen txirrindularitzaren gainean jakin beharrekoa banekiela, baina aurten ikusi dut hori ez dela horrela, taldekideek gauza asko irakatsi dizkidate-eta. Hori da gehien eskertzen dena, ondokoekin tratu ona izan eta dakitena zuri erakustea. Horrela ikasten da.

Kirolabur

ARRASATE/ATLETISMOA

Domekan, 12:30ean, Santamasetako 27. Koadrila Arteko Krosa jokatuko dute Arrasaten. Aurten ere Enrike Kabiketa zenaren omenez egingo dute korrika lasterkariek. Seber Altuben hasiko da lasterketa, eta Herriko Plazan amaitu.

Lehenago, 11:00etan hasita, gaztetxoenen lasterketak egingo dituzte.

ARETXABALETA/PILOTA

Seniorreko bigarren mailako pilotariek mailari eutsiko diote, Azpeitiko Ikasberri taldeari irabazi eta gero (7-22). Horren harira, gaur, 20:00etan, Errasti anaiek Amezketan jokatuko dute Zazpiturrikoen kontra. Bigarren mailara ez jaisteko lehiatuko dira.

DEBAGOIENA/FUTBOLA

Zapatuan jokatuko dute Debagoieneko preferente mailako lau taldeek, guztiek ere 15:30ean. Zubietara joango da Mondra, Oriokoren kontra jokatzera. Aretxabaletako UDA, berriz, Ordiziaraino joango da. Bergarak Zestoaren bisita izango du Agorrosinen, eta Hondarribiaraino joan beharko dute oñatiarrek.

ARRASATE/SASKIBALOIA

Mugarri Alkesa Saskibaloi Taldeak hobekuntza nabarmena egin du azken aste hauetan. Eskerrak, Arrasatekoek lehenengo itzuli makala egin dute-eta.

Bigarren itzulia geratzen da jokatzeko, eta bihar izango dute aurtengo azken jardunaldia. 20:15ean jokatuko dute Zizur Nagusian (Nafarroa). Urtea amaitzeko modu ezin hobea izango dute, Padura liderraren kontra jokatuko dute-eta.

ESKORIATZA/IBILALDIA

Oraingo domekan Eskoriatzan mendi ibilaldia egingo dute Leintz Eskola Kirolekoek. Dagoeneko hirugarren mendi irteera izango da, eta oraingoan Eskoriatzatik Aitzorrotzera joango dira. Goizeko bederatzietan irtengo dira Herriko Plazatik, eta Aitzorrotzen hamaiketakoa egin eta gero jaitsiko dira behera. Neska-mutikoez gain, gurasoak ere gonbidatuta daude mendi ibilaldian esku hartzera.

ARIZMENDI/KIROLAK

Joan den astelehenean egin zituen Arizmendik kirol eta jolas jardunaldiak. Ikastolen Federazioaren laguntza izan zuten, eta Euskal Herriko kirolak hobeto ezagutzea izan zuten helburu. Hala, gaur egun alde batera utzita dauden kirolak errekuperatu zituzten, eta ikasleek gogotik gozatu zuten horiek ezagutu eta praktikatzen.

Gabonetan oparia egiteko hamaika aukera!





ITZIAR UGARTE

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87

ZABALDU BERRIA

Eskola Politeknikoaren ondoan

+VISIÓN GRUPO OPTICO

ZURE BRICOLAJE DENDA

BRICO CENTRO

1.300 m²-ko erakusketa Gabon egun hauetarako briko-opariz beteriko

- *Etxerako artikuluak*
- *Elektrizitatea*
- *Lorategirako artikuluak*
- *Iluminazioa*

Sukaldeko Barra
(119 x 39,5 x 87 cm)
+ 2 aulki metaliko eta tolesgarri
59,95 €

- *Dekorazioa*
- *Tarimak*
- *Aulkiak eta mahaiak*

Laser Bidezko Nibela
Black & Decker Laser 21
3 metrora ikustea ahalbidetzen duena + Pila 9 V + babes poltsa
29,95 €

- *Neurrira eginiko aroztegia*
- *Bainu altzariak*
- *Kit-ean altzariak*



Aramaiorako bidean
Uribarri auzoa
(Markulete industrialdea)
ARRASATE
Tel. 943 712 069
ORDUTEGIA: 10 – 13.30 eta 16 – 20
ZAPATU ARRATSALDEETAN IREKITA

- *Brikolaje artikuluak*
- *Erremintak*
- *Margoak*

InTheLine ©
HEMEN ZURE AMETS GUZTIEK DUTE LEKUA
2 ALDIZ
2 Duplex zoragarriak espazioaz eta erosotasunaz gozatu dezazun bete-betean.
Bizitza kalitatea badu izena Aretxabaletan:
Eguzkienea eraikintza
Informazio gehiago: tel.: 943 31 12 17
Bide batez jai zoriontsuak opa dizkizugu
BRUESA GRUPO
Promozioa
Informazio hau arrazoi tekniko edo komertzialengatik alda daiteke. Apirilaren 21eko R.D.515/89ak eskatzen duen informazioa, iragarki honetan ez dagoena, gure bulegoetan dago eskuragarri.

GABONAK Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a / GABONEI BURUZKO ZENBAKI BEREZIA

AZALA: IMANOL SORIANO / ARGAZKIA: AITOR LIZARRALDE

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51
E-maila: gelatzu@gelatzu.com
OÑATI

Argi kolore bat dago,
emozio bakoitzarentzat.

Ehune
Apainketa

Garibai, 8 • Biteri Kantoia
Tel: 943 77 11 48
20500 ARRASATE
Gipuzkoa

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer egin ohi duzu Gabonetan?

NEREA ELORTZA
6 urte

Apaingarriak eta zuhaitza ipintzea gustatzen zait, etxe osoan. Baina bene-benetan Olentzero da gustatzen zaidana, Erregeak baino gehiago. Olentzerok ekartzen dizkit niri opariak.

XABI MURGIONDO
6 urte

Aurten benetan formala izan naiz eta opari asko espero ditut. Gabonetan Zubillagara joaten gara familiakoak, eta jaiotza ipintzen dugu. Guztietatik *Jesusito* dut gustukoen.

ANDONI IGARTUA
6 urte

Gabonetan turroia jatea gustatzen zait, txokolatezkoa, noski. Erregeak dira nire faboritoak, eta batez ere Gaspar. Jaiotza beti ipintzen dugu. Hala ere, Olentzerori idatziko diot.

ANTTON AGIRRE
7 urte

Gurera bai Olentzero bai Erregeak etortzen dira. Familiako guztiak elkartzen gara eta batera ospatzen ditugu jaiak. Lehengusu handiak eta guzti etortzen dira, gainera.



BORJA CORRALES
7 urte

Denetarik jartzen dugu etxean: jaiotza, zuhaitza, apaingarriak... Asko gustatzen zaizkit. Baina Gabon guztietatik gehien turroia gustatzen zait, txokolatezkoa!

SARA BIAIN
6 urte

Niri gehien turroia gustatzen zait. Zuhaitza zintzilikatu egiten dugu guk etxean, eta kolore guztietako apaingarriak ipintzen dizkiogu. Familia osoa batzen gara Gabonetan.

ZURIETABELTZ/ Gustuko dituzu Gabonak?

Sentimendu kontua, beste ezer baino gehiago

LEIRE KORTABARRIA / Kazetaria

Gabonak ditut urteko sasoirik gogokoena. Zaila da esaten zergatik, sentsazio eta sentimendu kontua delako, gertakizun zehatzena baino gehiago.

Gabonetan ustekabe onak izaten ditut: hala nola, aspaldian berririk ez nuen lagun batekin akordatu, eta hara non bere postal bat jasotzen dudan. Edo munduko beste txoko batzuetan bizi diren senideak derrepentean gertuago ditut, modu batean zein bestean. Zergatik ote? Gabonen magia! Ezin dut bestela azaldu.

Eta magiarena ez ezik, askatasunaren garaia ere badira. Neu inoiz baino askeago sentitzen naiz. Gabon kantak entzun eta abestu, apaingarriak miretsi, lasai bizi… eta egutegiaren edo marketinaren zentzurik gabeko aginduei jaramonik ez diet egiten.

Zelan ez ditut ba gustuko izango Gabonak? Niretako badira, bai, benetan *zoriontsuak*.

Geuk sortu dugun 'Gabon beharrak' itotzen nau

OIHANA ELORTZA / Kazetaria

Gabonetako oporrak gustukoak ditut, horixe baietz, udakoak eta Aste Santukoak eta asteburuetakoak gustukoak ditudan bezalaxe. Konpota eta Gabon gaueko *poteoa* ere gustatzen zaizkit, baina Gabon beharrak ito egiten nau. Gorroto dut udako oporretan Gabonetako loteria sei hilabete lehenago saltzen ikustea, eta gorroto dut Gabonak direlako eguneroko eginbeharrak hobeto egin behar direla pentsatzea. Adibidez, zergatik pasatzen dugu egunero baino denbora gehiago Gabonetan zer bazkaldu edo afaldu behar dugun erabakitzeko? Eta zergatik dugu jaki asko prestatzeko afana, dena jango ez dugula jakinda?

Geuk sortu dugun Gabon beharrak urduri jartzen nau: kontsumitu beharra, bazterrak hain goiz apaindu beharra, solidarioagoak izan beharra, eta okerrena, Gabon zahar gauean bi laztan eman beharra. Urte berri on!.

HERRITARRAK/ Gabonak igarotzeko hainbat aukera

Gabon festak bizi izateko hamaika modu daude; nola ospatzen dituzte Oñatin?

ERRETIROKO 'NESKATILAK' / SAN MARTIN EGOITZA

Oso ospakizun bereziak dira erretiratuen egoitzan ere. *Neskatila* taldeari —hala aurkezten dira—, kopatxoa eta turroia gustatzen zaizkio gehien. Opariei dagokienez, datorren urterako irteera gehiago eskatu diete Erregeei.

BEÑAT UGALDE / IKASLEA

"Opariak dira Gabonetatik gehien gustatzen zaidana. Gainera, etxean apainketak egiten ditugu amarekin. Kartulina baten zuhaitza ebakitzen dugu eta apaingarriak eta horiek guztiak ere eskuz egiten ditugu".

AMAIA AIZPEURRUTIA / ALEMANIAN BIZI DA

Urtean hirutan etortzen da etxera Amaia. Gabonetako egonaldia izan da luzeena, "baina hala ere ez dut dena egiteko astirik izaten. Urbiara joatea gustatzen zait, hemen dena oso laua baita; bizikletan ibiltzeko primerakoa".

AITOR MUGARTZA / SAN FRANTZISKON

"Pintxo bat, txikito bat eta kalean bueltatxoa egitea imajinatu ezin daitekeen luxurik handiena da Kalifornian bizi den batendako". Santo Tomasetarako dator extera.

BIXENTE IBARRONDO / GURUTZE GORRIA

Azken lau Gabonetan lan egitea egokitu zaio, koinatuarekin batera. "Istripu gutxi izan ditugu, baina bai Gabon afaria kontrako eztarritik sartuta larri egon direnak".



FEDERICO MENDIZABAL / ABESBATZA

"Oso lanpetuta ibiltzen gara Gabonetan Parrokiako korukoak, ze urteko emanaldi garrantzitsuenetakoa da oraingoa". Joan den astean egin zuten Gabonetako kantaldia.

JAVIER MARQUEZ / TAXILARIA

Noiz edo noiz deitu izan diote Gabonetan, baina ez ospakizunen baten erdian. "Egun lasaiak izaten dira guretako ere, enpresekin egiten dugulako lan, batik bat", dio.

VIAJES ARABA
GRUPO BESAIDE Club de Viajes

Ondo pasatu gabon jaiak!

Lazarraga 3 • OÑATI
Tel.: 943 71 62 16 • Faxa: 943 71 63 58

Gezurtiz

Kalebarria 29 behea
Orbea Etxea, parke aldetik
Tel.: **943 78 01 46**
20560 OÑATI

Estetika-lanak
- Aurpegiko tratamenduak
- Depilazio era guztiak (argizaria, elektrikoa...)
- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Masaje lasaigarria

Bereziak
- Laser bidezko behin betiko depilazioa.
- Gorputzeko eta aurpegiko peeling kimikoak: *gainazalekoa AHA, ertainekoa TLA eta sakonekoa Ekoderm.*
- Ezpainetarako betegarriak eta inplanteak
- Laser baskularra: *kapilarrak, benulak, barikulak, errubi puntuak, armiarmak, telangetasi arruntak...*

Bestelakoak
- Indiako Ayurveda masajea
- Makillaje ikastaroak
- Autolaguntza ikastaroak
- ...

Galde egizu!

KIROLA/ Urteko kirolari onenen aukeraketa

Herriko kirolariek egindako denboraldi bikaina saritu du Kirol batzordeak

JON BEREZIBAR

Gaur arratsaldean egingo den sari banaketarekin, Udaleko Kirol batzordeak aditzera emango du aurtengo herriko kirolari onenen izenak. Sarituak Yerai Varela eta Joxe Mendiola atletak, Jon Odriozola txirrindularia eta Aloña Mendi areto futboleko senior taldea izan dira.

Udaleko Kirol batzordeak dagoeneko aukeratu ditu aurtengo Oñatiko kirolaririk onenak, herriko komunikabideetan lan egiten duten kazetariekin batera. Aurten hiru kirolari eta aretoko futbol talde bat izan dira aukeratuak.

Lau izan dira sarituak, bakarkako eta taldeko kiroletan. Bakarkako kirolarietan, Yerai Varela eta Joxe Mendiola atleten lana saritu gura izan du aurten Kirol batzordeak. Yerai Varelak Espainiako Txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen 5.000 metroko proban eta urte osoan egindako lan bikaina azpimarratu du epaimahaiak. Bakarkako kirolean ere, Joxe Mendiolaren lorpenak goraipatu ditu batzordeak. Izan ere, Joxe Mendiolak benetan denboraldi ona egin du aurten: mendi maratoiko Euskadiko Kopako txapeldun izan da, eta bai krosean, bai mendiko lasterketetan, sailkapenetan goiko postuetan ibiltzea lortu du.

Taldeko kiroletan, berriz, Aloña Mendiko areto futboleko talde nagusiak eskuratu du saria. Iaz bigarren probintzialeko bigarren mailatik lehenera igotzea lortu zuten, eta hori izan da aukeratuak izateko arrazoia. Halaber, Jon Odriozola txirrindulariari sari berezia eman dio epaimahaiak, txirrindularitzan egindako ibilbide bikainarengatik.

AIPAMEN BEREZIAK

Sariak horiek izan dira, baina, gainera, hainbat aipamen berezi ere egin gura izan dituzte aurtengo herriko kirolaren gainbegiratua egiteko orduan. Aipamen horietako bat Ritxar Fernandez korrikalariak jaso du, oso denboraldi ona egin du-eta. Ritxarrekin batera, Angel Lera karatekak egindako lana ere aipatu du epaimahaiak. Horiekin batera, Aitor Otxoak eta Arkaitz Letamendik osatutako bikoteak ere jaso du aipamen berezia. Mendiko eskian Euskadiko txapeldunak izan dira Aitor eta Arkaitz.

Aukeraketa, ohi bezala, Udaleko Kirol batzordeak egin du. Behin izenak proposatuta, herriko komunikabideetan lan egiten duten kazetariekin adostu dituzte sarituak: *Kontzejupetik* aldizkariko Iñigo Arregi, Oñati Irratiko Mireia Bikuña, *El Diario Vasco* egunkariko Marian Gonzalez eta GOITBko Julen Iriondo kazetariak, hain zuzen ere.



Yerai Varela, bakarkako kiroletan aukeratua.



Joxe Mendiolak denboraldi bikaina egin du aurten.

Aipamen berezia jaso du Ritxar Fernandezek.

Jon Odriozolaren ibilbidea goraipatu du epaimahaiak.

ZURICH AUTOk eskaintzen dizu:

- **Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera**
- **Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa**
- **25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, %10eko deskontua**
- **"Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala**

- Laguntza juridiko eta legala bidaietan
- Deskontuak tailerretan
- Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Melia...) eta paradoreetan
- Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

... eta zure aseguruak?

ZURICH

Mª del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 30 09
Polts: 620 77 66 20

OÑATI
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a

GABONETAKO POSTALAK/ Laixan elkarteko Gabonetako postal lehiaketa

Oñatiko artista gaztetxoen Gabon postalik politenak aukeratu ditu Laixan elkarteak

JON BEREZIBAR

Oñatiko ia 500 artista gaztetxok hartu dute parte aurten Laixan elkarteko Gabonetako postal lehiaketan. Neskak izan dira abilenak aurten, eta laster Laixaneko bazkideek etxean jasoko dituzte irabazleen zorion-postalak.

Aurten ere lan txukuna egin dute Oñatiko neska-mutikoek Gabonetako postalekin. Izan ere, ia 500 postal jaso dituzte Laixan elkartean; aukeraketa, beraz, ez da lan batere erraza izan. Lehiaketan 8 eta 15 urte bitarteko neska-mutikoek hartu dute parte, nor baino nor artista handiagoa. Azkenean, baina, lau izan dira aukeratuak. Parte-hartzea handia izan da aurten ere.

Azaro erdialdean hasi ziren postal guztiak elkartean jasotzen eta gutxi gorabehera 450 haurrek hartu dute parte. Bi mailatan banatuta egon da lehiaketa: lehena, 8 eta 11 bitartekoa eta, bigarrena, 15 urtera artekoa. Bi mailetan neskak izan dira nagusi, mutikoen lanik aurten ez daeta irabazle atera.

A taldean, hau da, 8-11 bitartekoan, Sara Gomez, Herri Eskolakoa, eta Garazi Madinabeitia Txantxiku ikastolakoa, izan dira irabazleak. B taldean, berriz, Naiara Altuna eta Arantzazu Sagartzazuren postalak izan dira aukeratuak; lehena, Elkar-Hezi eskolakoa eta bigarrena Txantxikukoa.

Sariari dagokionez, 30 euro liburutan izango da maila guztietan.

BAZKIDEENTZAKO POSTALAK

Lau neska horien postalak, gainera, Oñatiko makina bat etxetan jasoko dira. Izan ere, behin lanik ederrenak aukeratuta, Laixan elkartean gordeko dituzte postalak. Urtero moduan bazkideei Gabon garaian bidaltzen zaizkien zorion-postalak egingo dituzte irabazleen marrazkiekin. Ia 500 bazkide daude Laixan elkartean, eta guztiek etxean jasoko dituzte Sara, Garazi, Naiara eta Arantzazuren postal ederrak eta zorion agurrak.

GARAZI MADINABEITIA

Garazirenaren moduko ia 500 postal jaso dituzte Laixan elkartean.

Nahiara Altuna



Arantzazu Sagartzazu



Ane Urkia



Xabier Ganboa

Xabier Apaolaza

Josu Zubia

Sara Gomez

Iñaki Urizar

AGENDA: Abenduak 17-

EKITALDIAK

ANTZERKIA
► ***El Contrabajo*** antzezlana izango da abenduaren 17an Santa Anan, 22:30ean. Sarrera 8 euro da, 6 euro aldez aurreko salmentan.

BERTSO JAIALDIA
► **Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Sustrai Colina, Amets Arzallus eta Joxe Agirre** bertsolariekin jaialdia izango da urtarrilaren 5ean, eguaztena, kiroldegian, 22:30ean.

UMEENDAKO

PAILAZOAK
► **Poxpolo, Mokolo eta Konpañia** pailazo taldearen emanaldia izango da abenduaren 18an, zapatua, Zuazola-Larraña Institutuan, 17:30ean.

JAIALDI BEREZIA
► **Umeendako jaialdia** egongo da abenduaren 26an, domeka. Zubikoa kiroldegian izango da, 17:30ean. Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek, Elvik eta Txan magoak girotuko dute jaia.

JOLASPARKEAK
► **Gabonetako jolasparkea eta ur parkea** izango dira urtarrilaren 3an eta 4an. Jolasparkea 11:00-14:00 eta 16:30-20:00 izango da zabalik; uretako jolasak 10:00-12:00 eta 15:00-17:00 izango dira.

ZINEMA
► ***Shin Chan*** filma emango dute abenduaren 27an eta 28an, astelehena eta martitzena, kultura etxeko zinema aretoan, 17:00etan.

ERAKUSKETAK

BUZTINEZKO ARTELANAK
► ***Teilak, buztinak eta buztinezko bihotzak*** delako erakusketa izango du Iñaki Jauregialtzo oñatiarrak kultura etxeko erakusketa aretoan abenduaren 22tik urtarrilaren 10era bitartean, egunero, 18:30-20:30. Itxita egongo da abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1ean.

IKASTETXEAK

ELKAR HEZI IKASTETXEA
► **Elkartasun azoka** izango da hilaren 18an, Herriko plazan, goizean.
► **Jaiotza bizia** egingo dute txikienek abenduaren 21ean, martitzena, Etxaluzen hasi eta Herriko plazara, 18:00etan. Plazan, janari azoka egingo du ikastetxeak.

ERREKALDE HERRI ESKOLA
► **Hainbat ospakizun** izango dituzte hilaren 23an: 09:00etan, Olentzero etorriko zaie bisitan ikasleei, gero, kanta kalejiran Herriko plazara joango dira, eta bukatzeko, Zuazola-Larraña Institutukoekin jaialdia izango dute.

OÑATZ

► EUSKAL DANTZAK

FOLKLORE JAIA ETA OÑATZEN BERRITASUNAK

Oñatz dantza taldeak Gabonak alaituko dizkigu folklore jaialdi batekin. Berezia izango da emanaldia, bi urtean herrian egiten duten lehenengoa izango da eta. Jaialdi horretan, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Zuberoako dantza tradizionalak jokatuko dituzte ikusleondako; eta jantzi berriak izango dituzte soinean. 40 bat dantzari arituko dira agertokian, azkenaldian 20 gazte sartu dira eta Oñatz dantza taldera.

Non: kiroldegian. **Noiz:** abenduaren 18an, zapatua. **Ordua:** 22:30.

TXANTXIKU IKASTOLA
► **Hilaren 22tik 24ra bitartean,** egunero ekitaldi bat izango dute. 22an, *Olentzero* antzezlana egingo dute ikastolan, 16:00etan; 23an, Olentzero joango zaie bisita egitera, eta gero berarekin kalejira egingo dute; egun berean, azoka plazan, janari salmenta egingo dute DBHkoek, 11:00etan; azkenik, 24an, egubakoitza, Gabon kanta kalejira egingo dute 12:00etan.

DEIAK

DINOSAUROEZ BERBETAN
► **Dinosauroen desagertzearen** gaineko hitzaldia egingo du Ilatargi astronomia taldeak abenduaren 21ean, martitzena, kultura etxean, 21:30ean.

KAMISETAK
► **Oñatiko kamiseta berriak** egin ditu Turismo Bulegoak, eta horiek saltzen egongo dira hilaren 18an, zapatua, Herriko plazan, 17:30ean eta kiroldegian, 21:30ean

ONGI ETORRI

BIZAR ZURI
► **Bizar Zuri,** Olentzeroren laguntzailea, abenduaren 19an, domeka, etorriko da Oñatira, Olentzerorendako gutunak jasotzera. Gaztelekuan egongo da, 18:30ean. Gero, Laixanen postal lehiaketako sariak banatuko dituzte.

A R G I Z T A P E N A

egaña

• Instalazio elektrikoak orokorrean
• Lampara moderno eta errustikoen erakusketa zabala

Zorionak
eta
Urte Berri On !!

Zubibarri 2
Tel./Faxa: 943 71 64 28
OÑATI

-Urtarrilak 8

OLENTZERO

► **Olentzero** Oñatiko kaleetan barrena ibiliko da abenduaren 24an, egubakoitza. Otadui Zuhaiztitik abiatuko da, 18:00etan. Ongietorria eman gura dioten ume eta heldu guztiak gonbidatuta daude.

ERREGE MAGOAK

► **Ekialdeko hiru erregeak** iritsiko dira Oñatira urtarrilaren 5ean, eguaztena, eta kabalgata egingo dute herriko kaleetan barrena, etxerik etxe opariak banatzen hasi aurretik. Herriko plazatik irtengo dira erregeak, Mikel Deunaren parrokia ondotik, 18:30ean.

MUSIKA

AURKEZPENA

► **Herriko hainbat abesbatzak** emanaldia egingo dute abenduaren 18an, zapatua, Agustinoen elizan, 20:15ean. Tartean, sortu berri duten bi taldek, Ganbara Txikik eta Ganbara Txikitxok, parte hartuko dute; baita Oñati Abesbatzak ere.

BANDAK ETA ABESBATZAK

► **Gabonetako kontzertu berezia** eskainiko dute Oñatiko musika banda eta txistulari taldeak, Oñati Abesbatzak, Parrokiako koruak eta Txantxiku ikastolako abesbatzak. Emanaldia hilaren 19an, domeka, egingo dute, Mikel Deunaren parrokian, 19:00etan. Oñatiko ereserki eta kantu herrikoiak, konposatzaile klasikoen piezak, soinu bandak… eskainiko dituzte.

► **Oñatiko bandak** emanaldia egingo du urtarrilaren 6an, eguena, Santa Ana antzokian, 12:30ean.

KIROLA

ARETO-FUTBOLA

► **Areto-futbol torneoa** jokatuko dute abenduaren 27an, astelehena, Zubikoa kiroldegian. Goizetik hasiko dira norgehiagokak.

HERRI LASTERKETA

► ***2004 –ixa 2005– lasterketa herrikoia*** deitu du San Silbestre taldeak abenduaren 31rako, egubakoitza. Herriko plazan hasiko da proba, 16:30ean. Parte-hartzaileen artean Gabonetako saski eder bat zozketatuko dute bukaeran.

GAZTELEKUAN

IKUS-ENTZUNEZKOAK

► ***Musika Ikusgarria*** zikloaren barne, Sepultura taldearen *Chaos DVD* ikusiko dute abenduaren 23an, eguena, eta AC/DCren kontzertu baten bideoa hilaren 28an, martitzena. Gaztelekuko sotoan izango da, 22:00etan.

URTE AMAIERAKO JAIA

► **Gabon zahar gauerdian** jaialdia egingo dute. Dantzarako musika entzun eta ipintzeko aukera ere izango dute han batutakoek.

JOSEBA OLALDE

► KONTZERTUAK

ASPALDIKO PARTEZ, GARIK KONTZERTUA ESKAINIKO DU OÑATIN

Urte asko dira Garik, Iñaki Garitaonaindiak, ez duela Oñatin jotzen; Hertzainak taldearen sasoitik, gutxienez. Hori aldatu egingo da abenduaren 30ean, izan ere, egun horretan eskainiko du kontzertua legazpiarrak gurean. Hain zuzen, bakarlari moduko *0-tik* diskoa aurkeztuko du emanaldi horretan. Bakarlari izan da, diskoa Garirena delako; baina baita diskoa bakardadean bizi izandako hainbat esperientziaren fruitu delako ere. Disko horretako abestiak batez ere emanaldiaren lehen zatian jokatuko ditu Garik; bigarren zatia akustikoagoa izango da, pianoak ere protagonismoa izango du, eta aurreko diskoetako abestiak gogoratu eta gogoraraziko ditu abeslariak.

Non: gaztelekuan. **Noiz:** abenduaren 30ean, eguena. **Ordua:** 22:30. **Txartelak:** 6 euro, kultura etxean; 8, txarteldegian.

TXINTXURRETA

- Pinturak orokorrean
- Estukoak
- Patinatuak
- Gotele
- Paperak
- Eskulanak
- Egurrarentzako babesgarriak
- Mozorro-jantziak

Zorionak eta Urte Berri On !!

Apaolaza 4, behea
Tel: 943 78 14 73
943 71 60 64
OÑATI

AVENIDA bideokluba
Euskadi etorbidea 7

ONENA bideokluba
Bidebarrieta kalea 15

Kutxazain automatikoa 24 orduz
Nobedadeak VHS eta DVD formatuetan

Makina automatikoak: sandwich hotz eta beroak, freskagarriak, zukuak, snack eta arto-krispeta beroak. (abenidako dendan bakarrik)

modu eroso eta errazean
...eta inoiz baino gertuago!

Tel.: 943 78 09 65 OÑATI

JOSE ANTONIO AZPIAZU / HISTORIALARIA

"Lehengo Gabonetan, zailtasun guztiak irudimenarekin gainditzen genituen"

JON BEREZIBAR

Lege Soziologia Institutuko irakaslea dugu Jose Antonio Azpiazu. Joan den mende erdialdeko Gabonei buruz hitz egin dugu berarekin. Familiak zuen pisua eta ospakizun herrikoiak ziren nagusi garai haietan. Gaur, ostera, indibidualismoa da nagusi, bere hitzetan.



GOIENKARIA

Lege Soziologia Institutuko irakaslea da Jose Antonio Azpiazu historialaria.

Berrogeita hamar urte atzera eginda, oso ezberdin ikusten dira Gabonak?

Erabat ezberdinak dira oraingo Gabonak lehengoekin konparatuta. Desberdinak ospakizunaren aldetik, baina baita festei ematen zitzaien zentzuari dagokionez ere. Familian, kalean, lagunartean... leku guztietan bizi ziren Gabonak eta orain baino askoz ere bereziagoak ziren. Familiartean ospatzen genituen batik bat, denok elkarrekin. Gaur egun, etxe giro hori gordetzea zailagoa izaten da. Gazte asko, gainera, ez dira egun horietan etxean egoten, kanpora joaten da jende asko, eta horrek eragin handia dauka ospatzeko eran ere. Ez dut baloraziorik egin gura horrekin. Ez onerako eta ezta txarrerako ere. Lehen, beste ohitura batzuk zeuden eta familia zen guztiaren ardatza. Gu zazpi anaiarreba ginen. Orain, kopurua asko jaitsi da. Gainera, seme bat beti etxera ezkondu ohi zen, eta horrek familia batzen zuen.

Ohitura asko galdu dira?

Lehen, adibidez, ohikoagoa zen jaiotzak egitea, Olentzero eta horrelakorik ez baitzegoen. Jaiotza txikitxo bat egiten genuen kaxatxo baten lagun artean eta ondoren etxez etxe joaten ginen kantuan eta eskean. Taldean ospatzen zen guztia lehen, eta gaur egun zentzu hori ere galdu egin dugu. Esan beharra dago oraindik ere ospakizunetan familiaren garrantziari eusten saiatzen garela. Lehen, hala ere, ahalegin berezia egiten zen. Orain, berriz, eskiatzera joatea nahiago dugu. Bizi ditugun garaien seinalea bestelako da. Indibidualismoak dauka pisua.

> *"Taldean ospatzen zen guztia lehen, eta ospakizunaren zentzu hori galdu egin da"*

Hala ere, ohitura batzuk galdu, baina berriak ere badituzu: Olentzero, esate baterako.

Nik Nafarroan, Lesakan, ezagutu nuen Olentzero. Han betidanik ezagutzen dute. Burdingintza eta ikazkinen ohitura handiko lekua da Lesaka eta euren tradizioan betidanik izan dute Olentzero. Geroago hedatu zen Euskal Herri osora kontu hori guztia. Nik ezagutu nuenean, ziren garaiak izanda, ezkutuanedo egiten zen ospakizun hori. Zentzua, gainera, askoz ere bereziagoa zen. Jendeak taldean ospatzen zuen Olentzeroren jaitsiera. Aipatu dudan moduan, taldean egiten zen dena, ospakizunak herri guztiak antolatzen zituen-eta, herrikoia zen. Aipatutako indibidualismoaren arrazoiak ere balioko liguke hori azaltzeko,

> *"Ospakizunetan familiaren pisua mantentzeko ahalegina egiten zen"*

orain indibiduoa da eta nagusi.

> *"Indibidualismoa da nagusi gaur egun, eta horrek eremu guztietan eragiten du"*

Beraz, familiarekin bat, herria ere zen ardatza?

Hala da, indibidualismoa gauza berria da-eta. Oñati, gainera, izatez oso herri parte-hartzailea da, baita ospakizun kontuetan ere. Oñatin badaude abesbatza edo herriko taldeak, besteak beste. Jendeak asko laguntzen du jaiak antolatzen, eta gogoz ospatzen dira. Hori zen antzinako Gabonek zeukaten zentzua.

Gaur egun telebistak hartu du guztiaren lekua?

Nik uste dut jendea, orain telebista dagoelako, errazago aspertzen dela. Telebistarik ez dagoenean, ez dugu jakiten zer egin. Lehen, zailtasun guztiak irudimenarekin gainditzen genituen. Telebistak sormena akabatu du. Ume ginenean ez genuen ezer behar jolasten hasteko eta orain, telebista eta *Play Station*-a modukoak behar dituzte entretenitzeko.

Telebistaren lekua mahaiinguruak betetzen zuen, ezta?

Kantuan egiten genuen asko, ahal genuena behintzat. Kantu tradizional asko genekizkien. Euskaldunak betidanik izan gara kantatzeko zaleak. Gutxienez orain arte hala izan da. Gaur egun, beste modu baten bizi da musika, eta kanpoko asko entzuten da. *Hit parade* eta horrelako zerrendetako musika entzuten da, eta guztiz galdu dira kantu tradizionalak. Bestela, orduan, gauerdiko mezetara ere joaten ginen. Gaur egun zentzu erabat profanoa daukate ospakizunek. Egutegiko beste egunen modukoak dira, opor sasoia, Aste Santuetan gertatzen den moduan. Oporren zentzu horrekin lotuta dago guztia, eta Gabonek asko galtzen dute horrela ikusita. Gutxienez, behintzat, lehen zeukaten kutsuaren kalterako da.

Janari kontuak ere asko aldatuko ziren, edo?

Xanpainik, adibidez, ez zen edaten. Oso ospakizun berezietarako uzten ziren bakarrik xanpaina eta horrelakoak, baina ez Gabonetarako. Ekonomikoki gauzak hobetzen hasi zirenean etorri zen xanpaina. Hala ere, menu berezia izaten genuen Gabonetan. Esate baterako, bakailaoa, oilaskoa, bisigua eta konpota izaten genuen. Hori bai, guztia bere neurrian, garai haietan ez geundeneta luxuetarako. Hala ere, baserrian geneuzkan lehengairik onenak erabiltzen genituen. Turroia jaten genuen, baina gutxi, hura ere luxua zelako. Janari kontuetan ekonomiak agintzen zuen.

NUTRIZIO ETA
OSASUN ZENTROA

Bete-betean bizi izateko garaia da;
geure burua zaintzeko eta gorputzaz eta arimaz gozatzeko ordua.
Bide horretan lagundu nahi dizugu.

Amaia Diaz de Monasterioguren
DIETISTA

Ione Beitialarrangoitia
PSIKOTERAPEUTA HUMANISTA

Eneritz Arriaran
PODOLOGOA

Lourdes Redondo Dk.
HOMEOPATIA
AKUPUNTURA
BACH ESENTZIAK

Kale Zaharra 5, behea, es. - 20560 Oñati
Tel.: 943 71 65 48

KALITATEZKO PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK GERTU-GERTUAN

ELEKTRIZITATEA, KRISTALDEGIAK ETA ITURGINAK

ARGISOUND, Arantzazuko Ama 9
EGAÑA, Zubibarri 2
TXINTXURRETA, Kale Barria 5
LETE, Kale Zaharra 38
FELIX ARREGI, Kale Barria 53
RTV BELAR, Olakua 1C
ZELAIA, Patrue kalea 5-10
ELKORO Kristaldegia, Lazarraga 1
GELATZU, Zubillaga 1

OPTIKAK ETA ARGAZKIAK

ITZIAR Optika, Kale Barria 32
ARKAUZ Optika, Lazarraga 2
PLAZAOLA Optika, Kale Barria 29
ION ARZUAGA Argazkiak, Kale Barria 28
PLAZAOLA Argazkiak, Kale Barria 21

BITXITEGIAK ETA OPARI DENDAK

ILLARRAMENDI Bitxitegia, Kale Zaharra 4
MUGARZA Bitxitegia, Kale Zaharra 6
SUA, Kale Zaharra 7
XAUEN, Erementeri plaza 1

ESTANKOAK, PAPERDENDAK ETA INFORMATIKA

ALTUNA, Kale Barria 19
IRIZAR, Foruen enparantza 6
URZELAI, Lazarraga 7
HARITZA, Kale Zaharra 4
HIRUKAR, San Lorentzo 1
O.R.I. Informatika, Atzeko kalea 1
URZAI, Portu kalea 4

JANARI DENDAK

ANDRES Arraindegia, Merkatu plaza z/g
ANTONIO FERNANDEZ Arraindegia, San Lorentzo 10
ANTXON Harategia, San Lorentzo 5
BIXAIN Harategia, Arantzazuko Ama 4
GARAI Harategia, Maiatzaren 1a plaza 2
JESUS ODRIOZOLA Harategia, Arantzazuko Ama 2
TARSICIO Harategia, Portu kalea 2
EGAÑA Okindegia, Kale Barria 35
GOIZTIRI DIETETIKA, Ramon Irizar 2
SAN MIGUEL KOOP., Kale Barria 8
KAMAMUÑO, Zubibarri 2

MERTZERIAK ETA LENTZERIAK

ANE, Kale Barria 54
ARANTZA, San Lorentzo 5
BEGOÑA, Atzeko kalea 4
KUTTUN, Bidebarrieta 19
URTAZA, Kale Barria 14
URZELAI, Kale Barria 26
XARMANTA, Kale Zaharra 18

ZERBITZUAK ETA BESTE

ALTUBE Zerbitzuak, Portu kalea 5
ARABA BIDAIAK, Lazarraga 3
URISU, Foruen enparantza 6
KOMA Akademia, Olakua 7

OINETAKOAK ETA POLTSAK

OLALDE, Kale Barria 38
PATXI, San Lorentzo 9B
KONTXI, Foruen enparantza 11

BURDINDEGIA, LOREAK ETA PENTSUAK

ELORZA, Kale Barria 17
JUANITOSA, Kale Barria 24
KIMU loradenda, Kale Barria 17
URTXIN loradenda, Portu kalea 5
BELLOTZA-UGARTE PENTSUAK, Bidebarrieta 19

DEKORAZIOA, ALTZARIAK ETA ETXEKO EHUNGINTZA

BARUE, Santa Marina plaza 4
HEGOIA, Ramon Irizar 2
ARANBURU, Kale Zaharra 21
PAKITA, Santa Marina plaza 6
MAIBI, Mendiko kalea 2
LANTZEN, Kale Barria 57

TATOO & PIERCING

ZORBA´S, Motxon kalea 1

JANTZIAK

AMALUR, Kale Barria 20
LETAMENDI, Foruen enparantza 8
MARKU, Kale Barria 6
N.I., Ramon Irizar 2
URRUTIA Gizonak, Kale Barria 54
ELORZA AHIZPAK, Euskadi etorbidea 5
IGARZABAL Ume jantziak, Moiua 10

LURRINDEGIAK, DROGERIAK, MARGOAK

JASONE, San Lorentzo 10
LAKET, Lazarraga 3
TXINTXURRETA, Apaolaza 4
ARANBURU, Kale Barria 47
PICO Errotulo eta Margoak, Berezao 8

KIROLDENDAK

ALZU S.L., Arantzazuko Ama 2
LIZARRALDE Kirolak, Olakua 16
MENDIZABAL Kirolak, Kale Barria 39
OSI Mendi-Kirolak, Mendiko Kalea 10

OSASUNA ETA EDERGINTZA

AMAIA DIAZ DE MONASTIOGUREN, Kale Zaharra 5
Mª CARMEN, San Lorentzo 4
LAMIAK, Euskadi etorbidea 15
NIKOLAS ETA IGONE, Kale Zaharra 2
TERE LETAMENDI, Atzeko kalea z/g

OSTALARITZA, KAFE DENDAK ETA GOZOTEGIAK

ARKUPE, Foruen enparantza 9
HARRIPE, Kale Zaharra 34
OSTATUA-HOSPEDERIA ARANTZAZU, Arantzazu auzoa z/g
KOROSTI Kafeak, Bidebarrieta 13
GORROTXATEGI, Kale Zaharra 24
KIKU Gozoki denda, Kale Barria 7
MIZKE Gozoki denda, Kale Zaharra 3

TXANDA

OÑATI, ZURE ZENTRU KOMERTZIALA

TXANDAREN UDAZKENEKO ZOZKETA

Sari nagusia: 1.250 euro erosketa-txateletan
Zenbaki saritua: **73.778** *(Nagore Maizterrena)*
Azkenengo lau zenbakiak berdinak edukiz gero:
250 euro erosketa-txarteletan.
Aurkeztu zure boletoa abenduaren 31a baino lehen!!

Txantxiku Dendarixen Alkartian partez,

Zorionak eta urte berri on!!

Etxerako altzariak

Altzari klasikoa modernoa eta errustikoa

Egongelak
Logelak
Sarrerak

Alfonbrak
Margolanak
Ispiluak

Apainketa artikuluak eta osagarriak

Berritze integralak gure enpresako langileek eginak obrak ahalik eta azkarren bukatzeko

Euskadi etorbidea 3 - **943 78 36 99**

1970ean sortua

Goienka 2a
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a
Kultura eta aisialdia
Abenduaren 17tik 24ra

HIRU FINALISTEN IZENAK ASTELEHENEAN

DANBAKA
DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Danbaka lehiaketako epaimahaiak gaurko kontzertuaren ondoren aukeratuko ditu hiru talde finalistak. Epaiaren eta azken kontzertuaren nondik norakoen berri emango du abenduaren 20ko 'Asteleheneko Goienkaria'-k. /17

AZKEN KONTZERTUA GAUR

Ozen (Arrasate), Sharon Stoner (Oñati), Turboamor (Arrasate) eta Stukas (Bergara) taldeen txanda Espaloia kafe antzokian, 22:30ean

Ozen.

Sharon Stoner.

Turboamor.

Stukas.

AZALA: IÑAKI ITURBE

ALMACENES ARRASATE

FAGOR eta ASPES etxetresna elektrikoetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA 2 URTE

1.460 X 550 X 590 mm

HOZKAILUA 1FA255
265 € 44.092 pta aspes

BERMEA 2 URTE

1.850 X 598 X 590 mm

HOZKAILUA COMBI 2FAC495P
359 € 59.733 pta aspes

BERMEA 2 URTE

800 b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA383
295 € 49.084 pta aspes

BERMEA 2 URTE

1.000 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA4163
345 € 57.403 pta aspes

BERMEA 2 URTE

450 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA143
208 € 34.608 pta aspes

BERMEA 2 URTE

LABEA
H21410 BN
BITROZERAMIKA
VAP1400

LABEA eta BITROZERAMIKA
345 € 57.403 pta aspes

TELEBISTA LAVIS
LA-1472 14"
119 € 19.800 pta.

TELEBISTA SONY
SONY 29" WEGA
399 € 66.388 pta.

TELEBISTA PANASONIC
TX-20LA2 LCD 20"
869 € 144.589 pta.

TELEBISTA Plasma PHILIPS
42PF9946 42"
2700 € 449.242 pta.

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 | Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

DANBAKA/ SAILKAPEN FASEKO AZKEN KONTZERTUA IZANGO DA GAUR, EGUBAKOITZA

Zati zirraragarriena, hastear

TURBOAMOR, OZEN, STUKAS ETA SHARON STONER TALDEEK JOKO DUTE ELGETAKO ESPALOIA ANTZOKIAN

LEIRE KORTABARRIA

Danbaka lehiaketako lehen fasea azken txanpan dago. Gaur, egubakoitza, joko dute azken lau talde sailkatuek. Baina fasea ez da horrekin bukatuko: hiru finalistak zeintzuk diren jakitea faltako da. Horien izenak *Asteleheneko Goienkaria*-n jakinaraziko dituzte antolatzaileek.

Gutxi falta da Danbakako, Debagoieneko musika lehiaketako, finalean zeintzuk izango diren jakiteko. Hori, beste inon baino lehenago, *Asteleheneko Goienkaria*-n jakin ahal izango da, abenduaren 20ko zenbakian, hain zuzen ere. Gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian joko dute geratzen diren lau taldeek. Gero, epaimahaiak balorazioa egin eta erabakia hartuko du. *Asteleheneko Goienkaria*-n, finalistak zeintzuk izango diren jakiteaz gain, epaimahaiak lehiaketaz egin duen balorazio orokorra ere irakurri ahal izango da; baita, ohi bezala, kontzertuaren kronika, argazkiak, eta lau taldeen gaineko hainbat iritzi ere.

Epaimahaiaren iritzia jakin ezean, ordea, publikoarena, behintzat, argi dago: aurreko lau emanaldietan, Elgetako Espaloia kafe antzokia bete egin da, eta musikazaleek gogoz txalotu dituzte taldeak. Sarrera altuena 450 lagunetik gorakoa izan da.

AITOR LIZARRALDE

Jendeak Danbakari egindako harrera onak aurreikuspen guztiak gainditu ditu.

FINALA

Finala urtarrilaren 14an, egubakoitza, jokatuko da, Elgetako kafe antzokian hori ere. Hiru finalistek joko dute, bakoitzak 40 bat minutuan. Irabazlearen izena hilaren 17ko *Asteleheneko Goienkaria*-n azalduko da. Talde horrek Arrasateko Shot! estudioetan diskoa grabatuko du.

Entzuleen saria ere astekari horretan jakinaraziko dute; izan ere, telefonozko SMS mezuen bidezko bozketan parte hartzeko epea zabalik egongo da urtarrilaren 16ko eguerdia arte, domeka. Entzulearen saria izango da bateria bat eta Gasteizko Carrion dendan musika tresnak erosteko 1.000 euroko txartela.

Edozelan ere, Danbaka lehiaketa ez da sari banaketarekin bukatuko. Izan ere, parte hartu duten taldeek –talde guztiak, hau da, grabaketak bidali zituzten 43 taldeak– euren burua ezagutarazteko aukera gehiago izango dituzte. Danbaka hainbat erakunderekin ari da horretarako lanean.

Bosgarren saioa, gaur

Ohi bezala, Elgetako Espaloia kafe antzokian izango da bosgarren eta azken kontzertua, gaur, egubakoitza, 22:30ean. Honako taldeek joko dute: Turboamor (Arrasate; indie-rocka egiten dute, pop estiloaren eraginarekin), Ozen (Arrasate; rock estiloa, Berri Txarrak taldearen tankerakoa), Stukas (Bergara; rock-and-roll eta punk estiloa da eurena, eta ingelesez ere abesten dute) eta Sharon Stoner (Oñati; post-rock edo grunge ukituak dituen rocka lantzen dute). Zorte on, bada, horiei ere!

Kontzertuak, birak…

Danbakan parte hartu duten talde guztiendako, euren burua aditzera emateko erakusleihoa izan da lehiaketa. Danbakak hainbat aukera prestatu ditu eurendako. Esaterako, Kilometroak'05 jaiaren barne, urtarrilaren 28an eta otsailaren 11n kontzertuak eskainiko dituzte Elgetan hainbat taldek; otsailean, gaztetxe eta gaztelekuetatik bira txiki bat egingo dute; Korrika Kulturalak egin gura ditu kontzertuak Danbakako taldeekin; eta Topaguneak, Kultur Errota egitasmoaren barne, beste aukera bat emango die.

Publikoaren Saria

Jendeak aukeratuko du Ikuslearen saria. Hemen, orain arteko sailkapena. Bidali mezuak: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 7744 zenbakira. SMSaren kostua 0,90 euro+BEZ

1	**ENBOSKADA**	ARRASATE Botoen %18,2
2	**DENIAL**	ARRASATE-ARETXABALETA Botoen %15,9
3	**STUKAS**	BERGARA Botoen %10,3
4	**OZEN**	ARRASATE Botoen %9,7
5	**MALENKONIA**	OÑATI Botoen %5,6
6	**POTEMKIN**	OÑATI Botoen %5
7	**AMONAL**	OÑATI Botoen %4,2
8	**ISAREVOLUTION**	ARRASATE-ESKORIATZA Botoen %4
9	**JIM TNT**	ARRASATE Botoen %4
10	**LOS CRETINOS**	ARRASATE Botoen %3,2
11	**SUPERCOOLS**	BERGARA Botoen %3,5
12	**IZAS**	ELGETA Botoen %3,1
13	**SHARON STONER**	OÑATI Botoen %3
14	**MATXURA**	ELGETA-SORALUZE Botoen %2,5
15	**DIXIE 900**	BERGARA Botoen %2,3
16	**N_OPH**	ARRASATE Botoen %1,7
17	**OSTIADA OI!**	ELGETA-ARRASATE-BERGARA Botoen %0,7
18	**NEURE BAITAN**	ARRASATE Botoen %0,8
19	**TURBOAMOR**	ARRASATE Botoen %0,6
20	**MUTED**	ARRASATE Botoen %0,5

DANBAKA
DEBAGOIENEKO I.MUSIKA LEHIAKETA

FINALERAKO SAILKATUAK!

Datorren astelehenean, abenduak 20,
Asteleheneko Goienkaria-n
emango dira aditzera finalerako sailkatu diren hiru taldeen izenak.

Gabonak, kantuz hobeto!

'GABON KANTAK' LIBURUXKA
DOAN
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun guztiendako

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunei
DOAN banatuko zaie liburuxka
abenduaren 20ko alearekin batera.

Gabon kanten bilduma, liburuxka batean • Familia eta lagun artean abesteko • Ilustrazio eta guzti

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

LIBURUA/ 'KARTZELAKO LEIHOTIK' SALGAI DA DEBAGOIENEKO HAINBAT DENDATAN

Espetxeko gogoetak, arte eginda

ESPETXEAN EGINDAKO MARGOLAN, ESKULTURA ETA IDATZIEN BILDUMA KALERATU DU JOSEBA ARREGI OÑATIARRAK

LEIRE KORTABARRIA

Urte luzeak daramatza preso Joseba Arregi oñatiarrak. Denbora horretan, margoek, portuges-mailuak eta lumak egin diote lagun. Urteotan presondegian egindako lanak liburuxka baten bildu berri ditu. *Kartzelako leihotik* du izenburua eta ibarreko hainbat dendatan saltzen dute.

Oraintsu plazaratu du Joseba Arregi presoak *Kartzelako leihotik* liburuxka, espetxeratuta daramatzan 12 urteetan egindako margolan eta eskulturen irudiak eta idatzitako hainbat pasarte jasotzen dituen 155 orriko bilduma. Ataramiñe euskal errepresaliatu politikoen literatura eta arte liburuen argitalpen taldeak kaleratu du, eta honako lekuetan eros daiteke: Oñatin, Haritza eta Ibarrondo liburu-dendetan; Eskoriatzan, Dorletan; Arrasaten, Hire liburu-dendan; eta Bergaran, Bilintx eta Peñalba dendetan. Salneurria da 15 euro, eta bildutako diru guztia Etxerat elkarteari emango diote.



JOSEBA ARREGI

Azpilleta jaiotetxeko sendia margotu du Arregik. Ezkerrean, bere burua margotu zuen, 13 urteko mutikoa.

LORPENAK ETA SUFRIMENDUA

Joseba Arregi *Azpilleta*-k iaz erakusketa ipini zuen Oñatiko kultura etxean, eta hamar egunetan, 1.300 lagunek bisitatu zuten. Arrakasta hori ikusita, Donostiako preso batek eta ingurukoek animatu zuten Joseba liburua egitera. "Bere lanek deskribatzen dituzte lorpenak, Lemoizkoa, esaterako; edo sufrimendua, presoen senideek bizitzen dutena", azaltzen du Josebaren emazteak, Nekane Basaurik.

Liburuan agertzen diren margolanek Joseba Arregiren bizipenen berri ematen dute. Hortaz, gai eta estilo aldetik, denetarik dago. Arregik berak honela azaltzen du liburuxkaren hitzaurrean: "Bilduma honetan gogoeta eta sentimen ugari agertzen dira: sufrikarioa, malenkonia, amorrua, bizinahia eta ezina, bizitzaren zutabea, borrokaren garrasia, amodioaren beharra, maitasuna… eta beti Euskal Herria gogoan".

Ingurukoak, senideak, dira Azpilleta-ren margolanen protagonistetako batzuk. Beste batzuk dira Oñatiko haurtzaroko oroitzapenak, euskal paisaiak, herrimina, maitasuna… Horiek margo figuratiboak dira, batik bat. Bitxikeria moduan, esan daiteke Arregik bere burua margotu duela zenbait lanetan, hainbat egoeratan.

Baina gai gogorragoak ere badira: kartzelako bizipenak, presoen egoera eta kanpotik iristen zitzaizkion albisteek inspiratutako margolanak. Azken hauek surrealistak eta, kolore aldetik, ilunak dira.

LAU KARTZELATAN EGINDAKO LANAK

Teknika aldetik, oñatiarraren lan gehienak olioz eginda daude; baita akrilikoz, *gouache* teknikaz eta ikatzaz ere. Fleuryn sei hilabetez ikasten aritu zen; Osnyko kartzelan bi urtean sakondu zuen zaletasun horretan, eta Clairvauxeko beste hamar hilabeteko lanak ere biltzen ditu liburuxkak. Bakar batzuk Navalcarneroko espetxean egin zituen. Gaur egun, Jaenen isolatuta dago Joseba Arregi, eta ez du margotzeko aukerarik.

Azpilletako semea

Joseba Arregi Erostarbe Arantzazun jaio zen, Azpilleta baserrian, 1946an; bere margoetan sarri ditu gogoan jaiotetxea eta familia, liburuxkan ikus daitekeen moduan.

1992an atxilotu zuten Bidarten, eta Frantzian pasa zituen zortzi urte, Espainiara estraditatu zuten arte. Gaur egun, Jaengo espetxean dago. Preso dagoenez geroztik, margotzea eta eskulturak egitea izan da bere denbora-pasa gogokoena, eta baita idaztea ere. Oñatin omenaldia egin zioten orain dela bi urte, eta, hori eskertzeko, erakusketa ipini zuen iaz herriko kultura etxean.



Joseba Arregi preso oñatiarra.



GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a

Abenduak 17-23

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► ***Ardoaz*** bakarrizketa egingo du Ander Lipus aktoreak bihar, zapatua, Olaran etxean, 22:00etan. Sarrera 2 euro da.

ARETXABALETA

► **Sun magoaren** emanaldia izango da gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 17:30ean, Loramendik eta Algara ludotekak antolatuta.

BERGARA

► ***Rekoloklown*** antzezlana egingo du Oihulari Klown taldeak gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean. Emanaldia euskaraz izango da.

ELGETA

► ***Hitzak patriketan*** umeendako antzezlana egingo du Hankatxo taldeak etzi, domeka, Espaloia kafe antzokian, 18:00etan, Udalak antolatuta.

OÑATI

► ***El Contrabajo*** antzezlana egingo du Maskarada taldeak gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Patrick Süskind idazlearen lan baten dago oinarrituta. Sarrera 8 euro da, 6 aldez aurreko salmentan.

► **Poxpolo, Mokolo eta Konpañia** pailazo taldearen emanaldia izango da bihar, zapatua, Zuazola-Larraña Institutuan, 17:30ean. Sarrera, doan.

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71
Laser bidezko depilazioa
Ile kalitate bakoitzerako laser bat:
•Alexandrita laserra: ile mehe eta argiendako
•Neodimio Yag laserra: ile lodi eta ilunendako
Gainbegiratze espezializatua
Proba DOAN ordua eskatuta

DEIAK

ANTZUOLA

► **Gazteguneko zozketako** zenbaki irabazlea 806 da. Horren jabea agertu ezean, 494 txartela sarituko dute. Astebeteko epea zabaldu dute.

► **Santo Tomas feria** izango da martitzenean, hilak 21, eskolako patioaren eta elizaren arteko gunean, arratsaldean.

ARAMAIO

► **Gabonetako menua** prestatuko dute Itziar Axpe eta Kepa Etxebarria sukaldariek Zubiondo jatetxean, astelehenean, hilak 20, 18:30ean. Edozein joan daiteke, ikaste aldera.

ARETXABALETA

► **Adiskidetze Sakramentua** egingo dute gaur, egubakoitza, parrokian, 19:00etan. Ez da mezarik egongo, eta hileta elizkizunak izatekotan, horien ondoren egingo dute sakramentua.

► **Kirol etxeko frontoia** erabiltzeko izena emateko epea zabalik dago astelehena bitartean, hilak 20, kirol etxean. Zozketa astelehenean egingo dute, 18:00etan.

► **Herriko Gazte Ekimenak** hainbat ekintza deitu ditu biharko, zapatua. Truke azoka egingo dute udaletxe zaharrean, 11:00-13:00; gero, bazkaria izango dute; 16:00etan, Urbaltzen, kupelada: 3 euroren truke gura beste garagardo, kupel bat hustu arte.

ARRASATE

► **Jaiotza** ipiniko dute astelehenean, hilak 20, Laubide plazan. Horren harira, Jaiotzaren aldeko taldeak dei egiten die herritarrei laguntza emateko. Kontu korronte batzuk zabaldu dituzte horretarako: 2100 1972 00 0200059461 (Caixa), 3035 0047 11 0471063564 (Euskadiko Kutxa) eta 2101 0123 98 0123936791 (Kutxa).

► **Batasunaren** bake proposamena aurkeztuko du Jon Salaberriak astelehenean, hilak 20, San Viatorren, 19:30ean.

► **Bertso saioa** izango da hilaren 22an, eguaztena, Amaia antzokian, 20:00etan.

bitart
Abokatutza eta bitartekaritza
Lege arazoen konponbide labur eta baketsuak
Larraitz Ugarte
Maider Morras
Nafarroa etorbidea 23
ARRASATE
943 71 25 22/23
659 59 71 21

BERGARA

► **Sahararen** gaineko hitzaldia egingo du Jesus Garai Sahararen Adiskideen Elkarteko kideak martitzenean, hilak 21, kultura etxean, 19:30ean.

ELGETA

► **Batzarra deitu dute Espaloia kafe antzokian,** honako gaiak lantzeko: hiruhilabeteko balorazioa, datorrenerako ekintzak antolatzea eta bazkidetza kanpaina. Astelehenean, hilak 20, izango da, 18:30ean.

OÑATI

► ***Vietnam: izenaren ostean dagoen izana, komunismoa eta globalizazioa*** delako hitzaldia egingo du Beatriz Rubio irakasleak. Eguenean, hilak 23, izango da, Elkar Heziren Santa Marinako egoitzan, 10:30ean.

► **Elkartasun azoka** egingo du Elkar Hezi ikastetxeak bihar, zapatua, Herriko plazan, goiz osoan.

► **Dinosauroen suntsipenaren** gaineko hitzaldia egingo du Felix Ares Kutxaespazioko zuzendariak hilaren 21ean, martitzena, kultura etxean, 19:30ean.

► **Santo Tomas azoka** egingo dute Txantxiku ikastolako DBHkoek hilaren 23an, eguena, azoka plazan, 11:00etan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Juan Luis Baroja Collet** grabatzaile eta eskultoreak erakusketa du Arregi markoztatze dendan, urtarrila arte.

BERGARA

► **Bergarako margolariek erakusketa** zabalduko dute hilaren 23an, eguena, kultura etxean, urtarrilaren 1era bitartean. Astegunetan, 18:00-21:00, eta zapatu eta jai egunetan, horrez gain, 12:00-14:00.

OÑATI

► ***Teilak, buztinak eta buztinezko bihotzak*** artelan erakusketa izango du Iñaki Jauregialtzok abenduaren 22tik urtarrilaren 10era bitartean, kultura etxean, 18:30-20:30.

IKUSKIZUNAK

OÑATI

► **Folklore jaialdia** egingo du Oñatz dantza taldeak bihar, zapatua, kiroldegian, 22:30ean.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE

► **Urte bukaerako festa** izango da Emakume Txokoan gaur, egubakoitza, 18:00etan. Txokoko ikasleek eta Goikobalu abesbatzako emakumeek emanaldiak egingo dituzte, eta luntxa ere izango dute.

► **Santamasak ospatzeko** honako ekintzak antolatu ditu Jai Herrikoien Aldeko taldeak biharko, zapatua: etxafuegoak eta diana, dantza kalejira; janak eta edanak, erraldoiak, kilikiak, txarri dantza; kultura taldeen bazkaria, umeendako buztin lanak, koadrila arteko herri kirolak, bertsolariak… Goiz eta arratsalde izango dira ekintzak.

► IKUSKIZUNAK

'EL HUESPED DEL SEVILLANO' ZARZUELA IKUSTEKO AZKEN EGUNAK

Joan den asteburuan, Arrasateko Izaskun Murgia elkarte lirikoak egin dituen bost zarzueletatik estreinaldi arrakastatsuena izan zuen *El Huesped del Sevillano* lanarekin; izan ere, Amaia antzokia bete egin zen, eta ikusleek txalo zaparrada artean agurtu zituzten elkartekoak. Horrez gain, aurtengo zarzuelak kutsu berezia du, Juan Artzamendi zenari eskaini diote eta. Pasa den asteburuan ezin izan zutenek joan beste aukera bat dute gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua. Azken emanaldiak izango dira horiek. *Raquel*-en eta *Juan Luis*-en arteko maitasun istorioa kontatzen du zarzuelak, eta hortik sortzen diren gorabehera hunkigarri, dramatiko eta barregarriak.

Non: Arrasaten, Amaia antzokian. **Noiz:** abenduaren 17an eta 18an. **Ordua:** hilaren 17an, 20:00etan; 18an, 19:30ean.

OÑATI

► **Jaiotza bizia** egingo dute Elkar Heziko ikasle txikienek hilaren 21ean, martitzena, Etxaluzen hasi eta Herriko plazaraino, 18:00etan. Plazan, janari salmenta postuak ipiniko dituzte.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Ardi Galduak (Arrasate) eta Mossin Nagant (Gasteiz)** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, 19:00etan, Gazte Ekimenak antolatuta.

► **Herriko akordeoi orkestrak** kontzertua egingo du bihar, zapatua, parrokian, 20:30ean.

ARRASATE

► **DJ jaiak** egongo dira 3.60 aretoan. Gaur, egubakoitza, 23:30ean izango da; bihar, zapatua, 04:00etan.

► **Gabonetako kontzertua** egingo du Arrasate Musikalek martitzenean, hilak 21, eskolan, 18:00etan.

BERGARA

► **Stiff Little Fingers eta Brigada Criminal** taldeen emanaldia egongo da gaur, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Gabonetako kontzertua** eskainiko dute Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Bergarako Orfeoiak-bihar, zapatua, pilotalekuan, 22:30ean.

► **Loquillok** kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Jam aretoan, 23:00etan. Crines taldeak ere joko du.

► **Musika eskolako ikasleek** kontzertua eskainiko dute martitzenean, hilak 21, pilotalekuan, 19:00etan.

ESKORIATZA

► **Aita Garayoa Donostiako** abesbatzak emanaldia egingo du etzi, domeka, parrokian, 19:00etan.

OÑATI

► **Oñati, Ganbara Txiki eta Ganbara Txikitxo** abesbatzek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Agustindarren elizan, 20:15ean.

► **Anger eta Ozen** Arrasateko taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.

► **Gabonetako kontzertua** eskainiko dute Oñatiko Bandak, txistulari taldeak, Oñati abesbatzak, parrokiako koruak eta Txantxiku ikastolako abesbatzak etzi, domeka, parrokian, 19:00etan.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

La milla verde
Egubakoitza: 22:30.

Umeendako zinema
Domeka: 17:00.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Ez dago emanaldirik.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

El lobo
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

La luna de Avellaneda
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Chocolate
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Shall we dance?
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Misión sin permiso
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Levity
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Ocean's twelve
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Diarios de motocicleta
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

La búsqueda
17:00, 19:45, 22:30.

Los increíbles
Egubakoitza: 19:45, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

Dos hermanos
17:00.

Bridget Jones: sobreviviré
19:45, 22:30.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
22:30.

La ventana de enfrente
22:30.

Ocean's twelve
17:30, 20:00, 22:30.

Polar express
17:30, 20:00.

Cinco chicos y esto
17:30, 20:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Mar adentro
17:15, 20:00, 22:30.

Ocean's twelve
17:30, 20:15, 22:45.

Los increíbles
17:15, 20:00, 22:30.

El lobo
17:15, 20:00, 22:30.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
20:15, 22:45.

Diarios de motocicleta
17:15, 20:00, 22:30.

Melinda y Melinda
17:30, 20:15, 22:45.

Bridget Jones: sobreviviré
17:20, 19:50, 22:35.

Polar express
17:30.

La búsqueda
17:30, 20:15, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Los chicos del coro
17:30, 20:00, 22:30.

La luna de Avellaneda
19:45.

Whisky
17:30, 20:00, 22:30.

Beautiful boxer
17:00, 19:45, 22:30.

El maquinista
17:00, 19:45, 22:30.

Contra la pared
22:30.

La historia del camello que llora
17:30, 22:30.

Los superbabies
17:30, 20:00.

Un toque de canela
17:00, 19:45, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Ocean's twelve
16:30, 19:20, 22:00, 00:45.

Polar express
16:00, 18:15, 20:30.

Dos hermanos
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Una Navidad de locos
22:45, 01:00.

Los increíbles
15:50, 18:10, 20:25, 22:45, 01:00.

El maquinista
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Bad Santa
22:45, 01:00.

Los superbabies
16:20, 18:25, 20:30.

Beautiful boxer
16:40, 19:20, 22:00, 00:45.

La búsqueda
16:25, 19:10, 22:00, 00:40.

El fantasma de la ópera
16:20, 19:10, 22:00, 00:40.

Alien vs. Predator
22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Los increíbles
12:15, 15:45, 18:00, 20:20, 22:45, 01:00.

Polar express
12:25, 16:25, 18:25, 20:25.

El mensajero del miedo
20:05, 22:30, 00:50.

Ocean's twelve
12:15, 16:30, 19:00, 21:45, 00:15.

Cinco chicos y esto
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

El fantasma de la ópera
12:15, 16:00, 18:45, 21:30, 00:30.

Princesa por sorpresa 2
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Bridget Jones: sobreviviré
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:55.

Collateral
20:10, 22:25, 00:45.

La semilla de Chucky
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Beautiful boxer
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Dos hermanos
12:15, 16:40.

Una Navidad de locos
12:15, 16:10, 18:10.

El lobo
12:15, 16:35, 19:05, 21:35, 00:05.

Bad Santa
22:25, 00:25.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Crimen ferpecto
12:15, 16:05, 18:05.

La búsqueda
12:15, 16:25, 19:10, 21:40, 00:24.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La búsqueda
12:00, 16:25, 19:10, 22:00, 22:20, 00:45.

La semilla de Chucky
12:00, 16:25, 18:25, 20:35, 22:35, 01:05.

Los increíbles
12:10, 15:40, 17:00, 18:00, 19:40, 20:20, 22:15, 00:45.

Polar express
12:15, 16:00, 18:10, 20:25.

Dos hermanos
12:00, 16:00, 18:15.

Bridget Jones: sobreviviré
12:10, 16:00, 18:10, 20:25, 22:35, 01:00.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
20:30, 22:25, 00:30.

Los chicos del coro
12:15, 17:05, 20:05, 22:05, 00:30.

Princesa por sorpresa 2
12:10, 17:00, 20:15, 22:35, 01:00.

El fantasma de la ópera
12:10, 16:45, 19:30, 22:15, 01:05.

Bad Santa
22:40, 00:45.

Ocean's twelve
12:00, 17:10, 20:00, 22:30, 01:05.

El lobo
22:30, 01:05.

Cinco chicos y esto
12:15, 16:10, 18:05, 20:10, 22:10, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, zapatuan eta domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

Melinda y Melinda: ●●●● / ***Crimen ferpecto:*** ●●● / ***Collateral:*** ●●● / ***Mar adentro:*** ●●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

2046

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Wong Kar-Wai.
AKTOREAK: Tony Leung, Maggie Cheung, Gong Li.

Duela urte batzuk Wong Kar-Wai-k, *Deseando amar* amodio istorio zoragarriarekin, ikusle asko liluraturik utzi gintuen. Handik aurrera irrikan geunden bere hurrengo lana ikusteko. Iritsi da momentua, eta, egia esateko, merezi izan du lau urteko itxaronaldiak: *2046* oso film erakargarria eta misteriotsua da.

Deseando amar-ek ezinezkoa den amodio istorio malenkoniatsua eta lirikoa kontatzen zigun, aztarnak uzten dituen horietakoa. Hori dela-eta, Wong Kar-Wai-k film horren gizonezko pertsonaia nagusia berreskuratzen du, amodio harreman horretatik markaturik geratu den pertsonaiaren amodio istorio berriak jarraitzeko: idazle bihurtu den kazetari ohia 2046. urtean kokaturiko amodio istorio futurista idazten ari da: *Deseando amar*-en maitale bikotea elkartzen zen hoteleko gelaren zenbakia 2.046 zen-eta. Idazleak 1963tik 1969ra arte izandako amodio harremanak ikusteko aukera izango dugu. Denboran aurrera eta atzera saltoak emanez, amodioari buruzko ikuspuntu zerbait tristea, malenkoniatsua eta misteriotsua emango zaigu: laguntza eskainiko dion jokalari batekin izandako

harremanak, hotelean bizi den neska batekin izandako jarrera nahiko krudela eta maltzurra, eta hoteleko jabearen alabarekin edukitako harreman platonikoa eta babeslea; azken hori, idazten ari den zientzia fikziozko istorioaren motor bihurtuko da.

2046 benetan erakargarria da, kontatzen duen istorioa eta hura kontatzeko modua bikainak dira. *Deseando amar* ikusteko aukera izan duen edonork gogoan edukiko du haren dotorezia eta harmonia: xehetasunak, ezkutuko begiradak eta sentipenak maisutasunez erabiltzeko erak, eta musika eta pertsonaiak oso erritmo bereziaz egindako ibilaldien bateratzeak filmari denbora eta lekuan flotatzearen sentsazioa ematen diote, ametsekin zerikusi handia duen sentsazioa, hain zuzen ere. Azken ezaugarri hori *2046* filmean areagotu egiten da: denborako salto batzuk dituenez, eta istorioa zerbait konplexuagoa, nahasiagoa denez, enigmatikoagoa da. 2046 sentsazioak, sentipenak, irudimena eta oroimenak nahastuz, mundu misteriotsu baten murgiltzen gaituen lan ederra da.

ANTONIO ZABALA

ORAIN, ZINEMA IKUSTEKO AUKERA PREZIO MURRIZTUAN
ASTEKO EGUN GUZTIETAN
Moztu txartel hau, eta sarrerak prezio murriztua izango du, zuretzat eta zure lagunarentzat
BIKOTEKIDEA ZAIN DUZU
04/12/31ra arte baliagarria
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.cinesabaco.com ÁBACO BOULEVARD
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 51 44 51 www.cinesabaco.com ÁBACO LAKUA
ÁBACO ABACO-N, ZURE EDALONTZIAK SARIA DAUKA, SEGURU !
www.cinesabaco.com

INMO f3 SARE inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

SALGAI

BERGARA

- **Matxiategin. Etxebizitza ederra salgai. 81 m2. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berrituta. Oso eguzkitsua.**

ARRASATE

- Uribe auzoan. 80 m2. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela bi. Garajea, ganbara eta 6 m2ko trastelekua. Guztiz berrituta.
- Uribe auzoan. 110 m2. Lau logela, sukaldea, egongela eta bainugela bi. Garajea aukeran.
- Erdialdean. 70 m2. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Dena berrituta. Estreinatzeke.
- San Josepe auzoan. 65 m2. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua. Oso egoera onean. 185.112 _ / 30.800.000 pta.
- Santa Teresa auzoan. 59 m2. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua. Erdi berrituta. 176.096 _ / 29.300.000 pta.

Etxebizitza berrien promozioa ANTZUOLAn. Zatoz eta erosi!

KEROSI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Erdialdea 80 m². Eguzkitsua.
- Erdialdea 85 m². Berritzeko.
- Martoko 85 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 45m². Berrituta.
- San Pedro 150m². Ondo.
- Zubieta 70 m². Eguzkitsua.

Antzuola:
- Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Garajea aukeran.
- Erdialdea 88 m². Berria.

Elgeta:
- Duplexa 140 m². Berria.

Soraluze:
- Erdialdea 57 m². Berrituta.

BASERRIAK SALGAI
- Elosun, Osintxun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
- Erdialdea 86 m². Etxe berria.
- Masterreka 75 m². Berrituta.
- Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
- Erdialdea 78 m². Berrituta.
- San Anton 67 m². Berrituta.
- Zubieta 70 m². Eguzkitsua.
- Erdialdea 75 m². Ganbara.
- Zubiaurre 55 m². Erdi berriztua.

ANTZUOLA:
- 11 etxebizitza berri.

SORALUZE:
- Errekalde 82 m². Ondo dago.
- Rabal 42 m². Ondo dago.

BASERRIAK
- Angiozar 600 m² eta lursaila.
- Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Bi logela. Berritua, bizitzera sartzeko. Gasa eta berogailua kanalizatuta. 168.000 euro. 666 80 09 32 edo 627 21 87 49.

Aramaio. Etxebizitza salgai Ibarran. Oso eguzkitsua. 63 m². Berrituta. Bizitzen hasteko moduan. Merke. 945 44 53 99.

Arrasate. 142 metro koadro. Erguin auzoan. 635 73 27 74.

Arrasate. Erguin auzoan. 60 m². Sukaldea, egongela, bainugela, hiru logela. Bi terraza. 615 75 04 72.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zerrajera kalean. 110 m². Deitu 19:00etatik 21:00etara. 615 70 29 18.

Arrasate. Uribe auzoan. 80 m². Erabat berriztatua. Garajea, trastelekua eta ganbara ditu. 659 77 18 57.

Benidorm. Etxebizitza saldu edo errentan emango nuke. Itsasora begira. Igerilekua, tenis pista eta parkea ditu. 639 41 84 65.

Oñati. Kale Zaharrean etxebizitza salgai. 69 m². Hiru logela, ganbara eta ortua. 943 78 13 47 edo 943 76 24 15.

Soraluze. Eraikin berria. Garajea eta teilatupea. Bi logela, bainua, sukaldea eta egongela. 666 69 27 69.

Soraluze. Etxe berritua salgai. Sukaldea eta bainugela jantzita. Garajea, solairuartea eta txokoa. 615 77 99 20.

102. EROSI

Bergara. Apartamentua edo etxe txiki bat erosiko nuke. Igogailua badu hobeto. 653 71 44 25.

103. ERRENTAN EMAN

Costa Sancti Petri, Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote nafar bat etxebizitza errentan hartzeko gertu. Urgentea da. 635 70 31 01.

Arrasate. Erdialdean etxebizitza errentan hartuko nuke, bi logelarekin. 630 47 35 30.

Arrasate. Etxea hartuko nuke errentan. 2005. urte osorako. 615 00 32 31.

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 615 00 32 31.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxebizitza osatzeko laguna behar dugu. 665 70 46 13.

Gasteiz. Gasteiz hiribide inguruan dagoen Gorbeia kalean etxebizitza osatzeko neska behar da. 337 euro. 665 72 20 85.

Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. 615 72 15 17.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Garaje itxia salgai. 670 49 87 40.

202. EROSI

Oñati. Garaje bat erosi gura nuke, Olakua edo San Lorentzo inguruan. 652 71 76 81.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje leku bat Kontzezino kalean. Telefonoa: 655 71 81 84.

Arrasate. Usaetxe plazan. 943 08 22 31.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje itxia hartuko nuke errentan Ozaeta edo Zubiaurre inguruan. 679 62 69 64.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Musakolan, 30 m², kaletik sarrera. Telefonoa: 943 79 66 44.

303. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Bulego moduan erabiltzeko 80 m²-ko lokala, Antigua 10en. 616 27 79 99.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

'Au pair' lan egiteko neska euskaldun bat behar dute Ingalaterran. 656 72 05 25.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskaldunak umeak zein pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Baita gauez ere. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko. 943 08 12 80.

Arrasate. Neska gaztea gertu garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko, Arrasaten edo Aretxabaletan. Telefonoa: 646 15 21 20.

ARETXABALETA

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO. 652 70 82 46

Arrasate. Neska gertu dago pertsona nagusiak zaintzeko. Astean, gauez. Eta asteburuan egunez eta gauez. Telefonoa: 666 24 85 95.

Bergara edo Antzuola. Neska arratsaldez edo aste bukaeretan etxeko lanak egiteko, edadetuak zaintzeko edo tabernan lan egiteko gertu. Esperientziaduna. (Elena). Telefonoa: 699 31 91 89 edo 943 76 63 10.

Bergara. Emakumea etxeko lanak egiteko gertu. 685 70 46 97.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko nahiz haurrak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. Telefonoa: 610 34 97 88.

Bergara. Emakumezko batek tabernan eta zaharrak zaintzen egingo luke lan. 620 36 38 24.

Bergara. Gizonezko batek egingo luke lan: txofer moduan, garbiketa lanetan, peoi moduan edota propaganda etxez etxe banatzen. 620 36 38 24.

Debagoiena. Anak etxeko lanak eta garbiketa lanak egingo lituzke. Horretaz gainera, haurrak, gaixoak eta nagusiak zainduko lituzke. 667 80 48 70.

Debagoiena. Elektrizista, iturgin, peoi edo publizitatea banatzen lan egingo nuke. 685 71 03 17.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko nahiz haurrak zaintzeko goizetan, orduka. Marian. 650 10 02 10.

Debagoiena. Emakumea gertu taberna edo jatetxeetan sukalde lanak egiteko. 943 77 13 64.

Debagoiena. Mutil euskalduna edozein lan egiteko gertu, asteburuetan. Telefonoa: 639 27 82 54.

Debagoiena. Neska gertu edozein lanetarako. 941 21 00 07.

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanetarako edo umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Telefonoa: 679 86 41 47.

Debagoiena. Pintore, igeltsero, peoi edo publizitatea banatzen lan egingo nuke. 679 86 41 47.

ARRASATE

KAFETEGI BATEAN EMAKUMEA BEHAR DA GARBIKETA LANAK ETA HARRIKOA EGITEKO. 635 73 27 74

Debagoiena. Sukaldaritza ikaslea eguen, egubakoitz, zapatu gaueta domeketarako lan bila. 606 36 29 27.

Soldatzaile lanetan eta eraikuntzan esperientzia duen gizon batek lan egingo luke. 661 22 51 49.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Antzuola. Itzulpengintzako 3. mailako ikaslea 14 urte arteko umeei ingeles, euskara edo gaztelania eskolak emateko gertu, zapatu goizetan. 605 77 34 05.

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak emango nizkieke. 645 73 04 69.

Debagoiena. Ingeleseko eta errusierako eskola partikularrak emango nituzke. Maila guztiak. Gabonetan ere. 610 97 49 68.

ARRASATE

ADMINISTRARIA BEHAR DA. LH II. 943 77 13 13

6/ MOTORRA

601. SALDU

Combi Ford Transit salgai. Tourneo 200. 2003ko abuztukoa. 669 42 55 63.

Ford Escort 1.8 TD 90 ZP autoa salgai. Familiarra. Deitu 10:00etatik 21:00etara (Javi). 667 47 21 42.

Kawasaki KLE trail motoa salgai. Egoera onean. 1.650 euro. 659 04 20 99.

KTM motorra salgai. 125 cm³. 2002koa. 656 71 32 47.

Mercedes Vito 110TD Combi L. 3 urte. Aire girotua. 70.000 km. 16.500 euro. 616 81 15 96.

Mercedes Vito furgoneta. 2000. urtekoa. Azterketa guztiak pasatuta.. 10.500 euro. (Elvio). 627 54 66 40.

Opel Astra GSI automobila salgai. 1992koa. 1.800 euro. 679 18 45 49.

Opel Astra salgai, 1992koa. 1.400 gasolina. Bi ate. Gris kolorea. Egoera onean. 1.500 euro. 646 09 52 44.

Opel Corsa salgai. 1.4 gasolina. 10 urte. Egoera onean. 635 75 62 79.

Opel Kadett 1.600 autoa. Bost ate. 675 17 43 89.

Opel Kadett GSI 2.0 autoa salgai. 3.000 euro. Idatzi 'opelsalgai@yahoo.es' helbidera edo deitu telefono honetara. 629 47 30 51.

Peugeot 206 HDI 2.0 XS salgai. 2003 urtekoa. Aire girogailua. Mikel. 686 02 29 79.

Suzuki Vitara autoa salgai. 1.6 16 v. Egoera onean. 6.900 euro. 650 71 03 22.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Mendiko behorra salgai. 943 78 61 92.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Pertsiar katua galdu zen abenduaren 8an Esploian. Kanela kolorekoa da. Laguntza sarituko da. 943 76 23 00 edo 617 90 15 91.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Antzinako kamera. XX. mende hasierako Kodak argazki kamera salgai. Apaingarri egokia. 100 euro. 696 76 38 42.

Antzinako banku bat salgai. 943 76 30 01.

Baserriko hurrak salgai. 646 09 52 44.

Eskiak eramateko parrilla salgai, Ford Focus autoarendako. Oso gutxi erabilita eta prezio ona. 687 73 68 74.

Jaunartzeko marinel jantzia salgai. Iaz erabilitakoa. 627 84 85 88.

Kamera digitala salgai. Samsung Digimax 301. 3x zoom digitala. Berri-berria. Gauez deitu. 686 20 03 58.

Kiwiak salgai Oñatiko Iraban baserrian. 10 kiloko kaxak. Deitu 18:00etatik 20:00etara. 943 78 18 32.

MP3 aparailua salgai. Estreinatu gabea. 627 84 85 88.

Pentium 21 ordenagailua salgai. Hainbat osagarri. Telefonoa: 627 84 85 88.

Tronboia salgai. Egoera onean. 676 78 37 65.

802. EROSI

Piragua. Bigarren eskuk bat erosiko nuke. 943 77 19 98.

803. EMAN

Bi artzain txakurkume oparitzen ditut. 943 76 35 58.

804. HARTU

Bergara. Gazte batzuek lokal baterako etxeko sofa, telebista edo beste edozein altzari hartuko lukete. 665 40 42 43.

806. GALDU

Betaurreko graduatuak, marroi kolorekoak, galdu nituen Oñatin abendu hasieran, Bidebarrietatik Olarako bidean. Aurkitu badituzu, deitu! 605 73 53 40.

808. BESTELAKOAK

Jdbug markako patinetea ahaztuta utzi nuen Marko dendaren aurrean Bergaran. 943 76 24 33.

FINKA PRIBATUA

FINKA PRIBATUA SALGAI
CORELLAN (NAFARROA)
OSO APROPOSA ASMA ETA BRONKIOETAKO GAITZAK DITUZTENENDAKO

- BORDA BERRITUA, 80 M2 .
- TERRAZA, 24 M2 .
- UR-PUTZUA.
- 3 TRASTELEKU GELA.
- ZUHAIZTI HANDIA.
- GUZTIZ HESITUTA.
- BI ERREKAK INGURATUTA.
- ESKUALDE-ERREPIDE BATEN ONDOAN.
- GUZTIRA, 2.500 M2-KO LURSAILA.
- 23.000.000 PTA.

646 38 57 45 (ALBERTO)

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

TELEMARKETIN LANETARAKO BI LAGUN BEHAR DITU

Interesatuok deitu:
943 71 23 91 telefonora eta Martagatik galdetu

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ARANZADI IKASTOLA

ARANZADI IKASTOLAK ondorengo titulazioa duen pertsona bat behar du lanpostu bat betetzeko:

- Psikologia Lizentziatura + Hezkuntza Bereziko Magisteritza edo Psikopedagogia Lizentziatura + Hezkuntza Bereziko Magisteritza
- EGA
- Informatika

BIDALI CURRICULUMAK HELBIDE HONETARA:
bergara@aranzadiikastola.org
edo
Aranzadi Ikastola
San Martin Plaza 4
20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 90 71
Faxa: 943 76 91 77

AHILDAKOAK

Jose Antonio Ugarte Urtzelai. Oñatin, abenduaren 8an. 77 urte.
Martin Roman Cordero. Arrasaten, abenduaren 9an. 86 urte.
Jose Mari Urtzelai Martinez de Albeniz. Oñatin, 11n. 81 urte.
Jesus Apaolaza Velez de Mendizabal. Arrasaten, 11n. 74 urte.
Prudencio Pagaldai Pagaldai. Eskoriatzan, 12an. 92 urte.
Alicia Lopez Rodriguez. Bergaran, abenduaren 13an. 71 urte.
Amaia Ibarra Irazusta. Bergaran, abenduaren 13an.
Cristina Losada Murua. Arrasaten, abenduaren 13an. 86 urte.
Rosa Alonso Alvarez. Oñatin, abenduaren 15ean.

Ramon Igartua eta **Axun Iturbe**k aste honetan, hilaren 15ean, 25 urte egin dituzte ezkonduta. Zilarrezko ezteiak ospatu dituzuelako, zorionak, familiaren partetik!

URTEURRENA

Iñaki Elortza Palacios

Zazpigarren urteurreneko mezak zapatuan, abenduaren 18an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren elizan; eta astelehenean, abenduaren 20an, 19:30ean Bergarako Sierbetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Francisco Bikuña Altube

Lehen urteurreneko meza zapatuan, abenduaren 18an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Lorea Astondoa Altuna

Seigarren urteurreneko meza domekan, abenduaren 19an, 13:00etan, Aramaioko Barajuengo Andra Mari elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Lorea Astondoa Altuna

1975.10.07 / 1998.12.21
VI. URTEURRENA



Egunean zehar eguzkiak
berotzen dituen moduan
gure etxe eta bizitzak,
gure oroimenean
zu beti izango zara
distiratsu dagoen argi goxo eta beroa.
Laster arte.

Aramaioko lagunak.
Aramaion, 2004ko abenduaren 17an.

URTEURRENA

Maria Josefa Madariaga Isas-Isasmendi

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Juan Manuel Gonzalez Lopez

Arrasaten hil zen 2004ko abenduaren 3an, 31 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Erraustsak domekan, abenduaren 19an, zabalduko ditugu. Nahi duten lagun guztiendako irteera, Udalan, 10:00etan.

Arrasaten, 2004ko abenduaren 17an.

ESKER ONA

Jesus Apaolaza Velez de Mendizabal

Arrasaten hil zen 2004ko abenduaren 11n, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2004ko abenduaren 17an.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a

HITZGEZIDUNAK

Luma

Globo gidagarri / Abal — 2101 / Egiptoko jainkoa — Haizearen jainko grekoa
*Izena / Estaltzeko kortxoa
Katedra bat duena / Altzoa — Infusio mota / *Deitura — Litioa (ald) / Landa
Oxigenoa / Usadioa
Sarri, trinko / Erromako enperadorea — Irango herritar
7. musika nota / Gizonezko izena
601 / Gaitzaldia, gaixoaldia — Suitzako ibaia / Jasangaitz
A birritan / Gadolinioa — Fruitu mota / Zalantza
Intsektu mota / Lutezioa — 500 / Molibdenoa
Nafarroako herria / Nafarroako harana
Zein

UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

TRAJIA ENKARGATZEN

Markiegirengana juan dira bi gazte trajia enkargatzera. Bata txikixa zan; bestia aundixa. 3.000 pezeta balio zeban trajiak. Txikixak diño:

- Zu, baiña, nik orren tela erdixa biot. Neri merkiago eiñ biestazu.

Eta Markiegik diño:

- Trajia, trajia dok. Baiña, bueno, txaleko barik nai bok 1.500 pezeta.

- Eiñ ba txaleko barik.

Urten dabe biak dendatik eta luziak esatetsa:

- I, baiña, pagatzeko asmorik ez, eta zertan ibili diskuziñuan?

- Berak gitxiago galdu deixan.

INOXIDABLIA

Madrillen bizi zan plaentxiar bat etorri zan beiñ batian Eibarko fabrika batera eta bai "pedido" on bat egin be. Oso lagun egin zan gure eibartarrekin.

Andik bost bat urtera etorri da berriz, eta bai arritxu be eibartarren gaztetasuna ikusitxa. Esatetsa eibartarrari:

- I, baiña, ointxe bost urte moduan ago. Zelan arreglatzen aiz olan konserbatzeko?

- Eibartarraren erantzuna:

Itxura danez, ez bakarrik nere produktuak, neu be inoxidablia nok.

ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Zure ideiak eta egiten dituzun pausoak zorrotz defendatzen dituzu, eta ez duzu onartzen oker ibil zaitezkeela. Horrek arazo bat baino gehiago ekarriko dizu bikotekidearekin. Bestalde, pasio bila irtengo zara bikotekidearekiko harremanetik kanpo.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Eztabaida biziak izango dituzu lanean, oraingo lan baldintzekin ez zaude-eta batere pozik. Azter ezazu egoera objektiboki eta ondo pentsatu esan behar duzuna. Bestalde, dermatologoarengana joan beharko duzu, hainbat erupzio kutaneo irten zaizkizu-eta.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Jendeak ez zaitu ulertzen, eta horregatik, konfiantza osoko lagun batekin bakarrik egon gura izango duzu, gainerakoengandik ihesi.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Argi ibili ingurukoen jokaerengatik zer esaten duzun, ondo azter itzazu egoera guztiak konklusioak atera aurretik. Gertukoengan konfiantza handia izan behar duzu, eta ez egin kasurik txutxumutxuei.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Gastuei aurre egiteko diru estra bat izango duzu. Bestalde, lanean ardura gutxiago izango dituzu, eta denbora luzeagoz egon ahal izango zara familiakoekin. Azkenik, zaindu dieta.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Lagunek inbidia handia izango dizute; izan ere, zuk beti ligatzen duzu, eta haiek ez. Bestalde, atzerritik berri onak helduko zaizkizu.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Ez izan hain zorrotza besteon hanka-sartzeekin eta akatsekin, eta ezer kritikatu aurretik, pentsa ezazu zuk zeuk ere egiten dituzula hanka-sartzeak. Bestalde, higiezinetan eginda zenituen inbertsioek ez dute fruiturik emango.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Lanean ardura eta erantzukizun handia duzu, eta ezin izango duzu denbora luzerik pasatu familiakoekin. Horrek egonezina sorraraziko dizu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Lanean aukera polita izango duzu gorantz egiteko; izan ere, hainbat proiektuk fruituak emango dituzte.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Kexuak eta bestelakoak norberak azaldu behar ditu; hau da, ez erabili inor horiek azaleratzeko. Horrela, emaitza hobeak lortuko dituzu.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Zure bizitzan nagusi diren kaosa eta desordena atzean uzteko garaia da, berregituratu egin beharko duzu daramazun bizimodua. Eta lanetik hasi beharko duzu egituraketa hori egiten, ekonomikoki gauzak ez dabiltza-eta batere ondo.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Zorizko jokoetan dirua edo sariren bat irabaz zenezake; baina argi ibili! Ez galdu txartelak edo frogagiriak.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



Zein omendu berri du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak?

Joan zen zapatuan estreinatu zuten *El Huesped del Sevillano* zarzuela, Arrasateko Amaia antzokian. Mondragoeko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak egin du antzezpena eta ibarreko 100 bat lagunek hartu dute parte. Asteburu honetan, beste bi emanaldi izango dira. Baina, musika ikuskizun horretan, Arrasateko musikari bat omentzeko aprobetxatu zuten. Jakingo zenuke ze musikari omendu zuten?

- Miguel Gonzalez Bastida.
- Juan Artzamendi.
- Iñaki Maidagan.
- David Azurtza.

Erantzun zuzena: Juan Artzamendi, joan zen ekainean hil zena.

BILABILA7





SOLUZIOAK





Abenduaren 20a: 026 zozketa

Harpidedunen txokoa

Sariak, astero!

Astelehenean, abenduaren 20an, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Abenduaren 20ko sariak

- **"IPUIN KLASIKOAK"** umeendako bi liburu.
- **SD EIBAR - RECREATIVO DE HUELVA** futbol partidua ikusteko sarrerak, saridun bakoitzarentzat bi sarrera.

Mediterraneoko itsasbidaiak badu irabazlea:
Maria Angeles Zulueta
Mediterraneoan zeharreko bi lagunendako itsasbidaiaren zozketa egin zuten GOITBn abenduaren 16an, eta hantxe tokatu zitzaion saria Maria Angeles Zulueta oñatiarrari. Zorionak!

Laguntzailea: VIAJES IBERIA

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ESKAINTZA BEREZIA
Harpidetza kuota, 35 euro!
2004 eta 2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

025 zozketa saridunak

Hauek izan dira beste sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, urtarrilaren 14an Elgetako Espaloia antzokian egingo den Danbaka lehiaketako finalerako.

- Juanita Zabalo (Antzuola)
- Meri Arroyo Fernandez (Arrasate)
- Pedro Aranbarri Uriarte (Arrasate)
- Kontxi Lasagabaster Uribeetxebarria (Aretxabaleta)
- Josu Andoni Ugalde Argatxa (Bergara)
- Jose Julian Garitano Irazabal (Antzuola)
- Jose M. Lasaga Heriz (Arrasate)
- Lierni Mendizabal Elorriaga (Elgeta)
- Felix Elorza Loiti (Aramaio)
- Maria Arrese Letona (Eskoriatza)

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a



'Filma'

ASTEBURUA / *** ikus beheko taula**

'Burdinazko maskaraduna' filma oraingo asteburuan

Frantziako tronuaren bi oinordekoen jaiotza ondo gordetako sekretu bezala geratu zen. Hamabost urte geroago, anaia bikietatik zaharrena Luis XIV.a erregea da, haren anaia Philip badenik ere jakin gabe...

'Debarri'

MARTITZENA 21 / **21:00 eta 23:00**

Arrasateko alkatearen txanda oraingo 'Debarri' saioan

Alberto Gorritibereak aurkezten eta zuzentzen duen *Debarri* saioak Arrasaten egingo du oraingoan geldiunea. Programa, berez, aurreko astean egitekoa zen, baina hainbat arazo izan ziren, eta martitzenean, hilak 21, izango duzue.



'Danbaka'

MARTITZENA 21 / **21:30 eta 00:00**

Stukas taldearen kontzertua Elgetako Espaloia antzokitik

Azkeneko txanpan dugu *Danbaka* saioa. Azkeneko lau kontzertuetariko lehena izango duzue martitzenean, hilak 21. Bergarako Stukas taldearen txanda izango da. Lehenengo emanaldia 21:30ean eta bigarrena 23:00etan.

'Danbaka'

EGUENA 23 / **21:30 eta 23:00**

Arrasateko Turboamor taldearen emanaldia

Pop musika doinuak gogoko badituzu ez galdu egueneko *Danbaka* saioa. Arrasateko Turboamor taldeak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian emandako kontzertua eskainiko dizuegu. Ordu erdiko musika saio bizia!

TELEBERRIAK

Gazteendako lehiaketa antolatu dute GOITBk eta Debagoieneko euskara elkarteek

Debagoieneko 12-16 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa abiaraziko du GOITBk: *Baneki*. Otsail inguruan hasiko da. Batez ere, Debagoienaren gaineko jakituria erakutsi beharko dute gazteek. Lau laguneko taldeak osatu eta elkarren artean lehiatu beharko dute. Parte hartu gura duten gazteek datorren martitzenera arteko epea dute izena emateko (abenduak 21). Lau modu daude horretarako: *Asteleheneko Goienkaria*-n eta *www.goiena.net*-en agertuko diren izenemate orriak beteta; SMS bidez 7744 zenbakira mezua bidalita; ikastetxeetan izena emanda; edo honako telefonora deituta: 943 76 36 61

Autismoaren aldeko sentsibilizazio kanpaina eta maratoia

Bosgarren urtez, Euskal Irrati Telebistak gai bat aukeratu eta harekiko gizartearen sentsibilizazioa pizteko ekimenak abiarazi ditu. Aurtengo abenduan, autismoa aukeratu du. Hala, *Autismoak bakartu egiten du, eta zeuk?* leloarekin, autismoarekiko sentsibilizazioa bultzatzeko kanpaina abiarazi zuen joan den astelehenean, hilaren 13an. Eta eguaztenean, hilaren 22an, bukatuko da. Tarte horretan, EiTBko medio guztietan autismoarekin lotutako saioak, elkarrizketak eta bestelakoak egingo dituzte. Eta abenduaren 22an, telemaratoia egingo dute, EiTBko medio guztien bitartez.

ASTEKO PROGRAMAZIOA/ Abenduaren 17tik abenduaren 23ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 17	ZAPATUA 18	DOMEKA 19	ASTELEHENA 20	MARTITZENA 21	EGUAZTENA 22	EGUENA 23
13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:15 **Berriak** 14:45 **Behazulo** 15:15 **Danbaka:** Ostiada Oi! 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:25 **Danbaka tartea** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ilunpean:** Naroa Agirre 21:30 **Gure lanbide zaharrak** 22:00 **Berriak** 22:25 **Danbaka tartea** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Gure lanbide zaharrak** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:05 **Behazulo** 11:35 **Danbaka:** Supercools 12:05 **Danbaka tartea** 12:10 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 13:30 **Oinak izarretan** 14:00 **Filma:** Burdinezko maskaraduna 15:00 **Ilunpean** Naroa Agirre 15:30 **Danbaka:** Ostiada Oi! 16:00 **Danbaka tartea** 16:15 **Bi eta bat** 16:45 **Iragana gogoratuz** 17:15 **Klip@** 17:30 **Behazulo** 18:00 **Danbaka:** Supercools eta Ostiada Oi! 19:00 **Danbaka tartea** 19:15 **Emisio amaiera**	11:00 **Filma:** Burdinazko maskaraduna 12:00 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 13:10 **Danbaka:** Ostiada Oi! 13:40 **Danbaka tartea** 13:55 **Oinak izarretan** 14:25 **Gure lanbide zaharrak** 15:00 **Filma** 16:00 **Danbaka:** Supercools 16:30 **Danbaka tartea** 16:45 **Bi eta bat** 17:15 **Ilunpean** 17:45 **Iragana gogoratuz** 18:15 **Klip@** 18:30 **Danbaka** Ostiada Oi! eta Supercools 19:30 **Ilunpean** 20:00 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:15 **Berriak** 14:40 **Danbaka tartea** 14:45 **Ilunpean** 15:15 **Gure lanbide zaharrak:** Baserriko lanak 15:45 **Berriak** 16:10 **Danbaka tartea** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:25 **Danbaka tartea** 20:30 **Marrazki bizi dunak:** Kalimero 21:00 **Harmailatik** 22:00 **Berriak** 22:25 **Danbaka tartea** 22:30 **Harmailatik** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 14:15 **Berriak** 14:40 **Danbaka tartea** 14:45 **Harmailatik** 15:45 **Berriak** 16:10 **Danbaka tartea** 16:15 **Klip@** 19:00 **Emisio hasiera** 19:05 **Oinak izarretan** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizi dunak** 21:00 **Debarri:** Arrasate 22:00 **Danbaka:** Stukas 22:30 **Berriak** 23:00 **Debarri** 00:00 **Danbaka** 00:30 **Gaurkoak** 00:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:15 **Berriak** 14:45 **Oinak izarretan** 15:15 **Danbaka:** Stukas 15:45 **Berriak** 16:15 **Debarri** 17:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:25 **Danbaka tartea** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Iragana gogoratuz** 21:30 **Bi eta bat** 22:00 **Berriak** 22:25 **Danbaka tartea** 22:30 **Iragana gogoratuz** 23:00 **Bi eta bat** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 14:15 **Berriak** 14:40 **Danbaka tartea** 14:45 **Iragana gogoratuz** 15:15 **Bi eta bat** 15:45 **Berriak** 16:10 **Danbaka tartea** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 21:00 **Behazulo** 21:30 **Danbaka:** Turboamor 22:00 **Berriak** 22:30 **Behazulo** 23:00 **Danbaka** Turboamor 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
21:00 **Ilunpean**	16:15 **Danbaka**	11:00 **Filma**	21:00 **Harmailatik**	22:00 **Danbaka**	21:00 **Iragana gogoratuz**	21:30 **Danbaka: Turboamor**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

KAMERA AURREAN

"Metaleko patronalak ikusten du langileak ez daudela baturik. Urteak daramatzate sekulako mozkinak izaten, eta, bitartean, langileen egoerak txarrera egin du".

Atarratz Etxebarria / LABeko ordezkaria 'Berriak' (2004/12/15)

"Jostailu truke merkatuarekin, Gabonetan pilatzen diren jostailuei irtenbidea eman gura diegu. Kontsumismoari aurre eginez, jostailuak trukatu gura ditugu".

Elen Kortajarena / Txatxilipurdiko kidea 'Behazulo' (2004/12/15)

DANBAKA
DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Emanaldiak GOITBn

Astelehena, 20 • 20:25 eta 22:25
Stukas taldearen aurkezpen saioa.
Martitzena, 21 • 21:30 eta 23:00
Stukas taldearen kontzertua.
Eguaztena, 22 • 20:25 eta 22:25
Turboamor taldearen aurkezpen saioa.
Eguena, 23 • 21:30 eta 23:00
Turboamor taldearen kontzertua.
Egubakoitza, 24 • 20:25 eta 22:25
Asteak eman duena gainbegiratuko dugu: Stukas+Turboamor.
Horrez gain, Publikoaren sariaren gaineko sailkapenaren berri emango dugu eta baita hurrengo asteko taldeen emanaldien berri: Sharon Stoner (martitzena, 28) eta Ozen (eguena, 30).

zorionak eta urte berri on

elkarlanean
ikastola aurrera

ARANZADI IKASTOLA

Arizmendi ikastola

TXANTXIKU IKASTOLA

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2004ko abenduaren 17a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Jose Mari Arkauz/ Turroigilea

Zerezko turroiak egiten dituzu?

Hiruzpalau mota ezberdinetakoak. Intxaurrezkoak eta hurrezkoak egiten ditut, adibidez, Bestalde, Prudencio Uribetxeberriak konfitura enpresa zuen XX. mende hasieran Eskoriatzan eta hango errezetekin ere egiten ditut frutazko turroiak.

Etxeko osagaiekin egiten dituzu?

Bai. Etxeko intxaurrekin eta hurrekin egiten ditut. Batu, lehortu, garbitu eta txikitu ere neuk egiten ditut. Lan handia eskatzen du, baina nik osagai naturalekin egin nahi ditut.

Hagin gogorrekin ala bigunekin jatekoak dira?

Hagin bigunekin ere jan daitezke, bai, neuk ere horrelakoxeak ditut-eta. Gainera, jendeak eskatu dit bigun samarrak egiteko.

Nork erakutsi zizun turroia egiten?

Aldizkari batean irakurri nuen duela lau bat urte, eta ordutik hona egiten dut.

Oreari bi orduan eragin behar zaio, eta hori oso neketsua da; hala, makina bat asmatu eta egin nuen, eragite lana errazteko.

Azoketara eramaten duzu makina hori?

Bai, eta turroia ere egiten dut, gainera. Moldeak ere eramaten ditut eta olatarekin prestatzen ditut lehenbizi. Orea gertu dagoenean, moldetara botatzen dut. Azoketan prozesu osoa ikus dezake nahi duenak.

Nongo azoketara joaten zara?

Inguruko herrietan egiten dituztenetara. Adibidez, ekainean Eskoriatzan egiten duten azokara ere joaten naiz. Akaso ez da turroia saltzeko sasoirik onena, baina jendeak asko erosten du. Aretxabaletan ere egoten naiz, San Migel jaietan. Aurten, adibidez, jende asko ibili zen goizean, eta ordu gutxian tableta asko saldu nituen. Arratsaldean, berriz, goizean hantxe bertan egindakoak saldu nituen.

Gainera, orea egiteko erabiltzen dudan makina horretan herri batzuetako bandera txikiak jartzen ditut bueltan-bueltan.

Santamasetan egongo zara Arrasaten?

Bai, hara ere urtero joaten naiz. Santamasetarako, dagoeneko jende gehienak erosi ditu Gabonetako turroiak, baina, hala ere, jende dezentek erosten ditu nireak ere.

Zenbat tableta saltzen dituzu, gutxi gorabehera?

Joan den urtean, adibidez, 100 tableta eraman nituen Arrasatera eta denak saldu nituen.

Zergatik jarri diozu Uxarte izena?

Geure baserriaren izena da. Ez nekien zein izen jarri. Batzuek nirea jartzeko esan zidaten, baina ez nuen nahi, eta azkenean baserriaren izena jartzea pentsatu nuen.

Zuen etxean izaten da bestelako turroirik?

Bai, txokolatezkoa asko gustatzen zaie gazteenei-eta. Hala ere, neuk egindakoa ere oso gustura jaten dute.

"Azokara makina ere eramaten dut eta prozesu guztia ikusteko aukera izaten da"

"Ekaina ez da akaso turroia saltzeko sasoirik onena, baina Eskoriatzako azokan jendeak asko erosten du"

"Joan den urtean 100 tableta saldu nituen Santamasetan, eta aurten ere banoa"

► *Eskoriatza / 58 urte / Langilea*

PIPERRAUTSA

Hatzak

Hamar hatz ditu Espainiako errege borboiak, bi eskutan erdi banatuta. Eskuin eskua du printzipalena, honekin sinatzen ditu legeak eta aurkezten dizkioten paperak. Pentsa daiteke beronekin gobernatuko dituela bere negozio partikularrak. Ondo samar gobernatu ere, ze pobre iritsi zen erregetara eta geroztik ez ei du irauten pobre. Honetaz ez dugu gauza segururik jakingo, nola-eta ez dioten ezartzen berari ere ondarea aitortzeko obligazioa. Baina gogoan dut esku ezkerrez laguntzen zion Prado besobakarra, nola ibili zen epaitegietan, estali guran elkarrekin omen zituzten negozio ilunak.

Eskuin eskuan du borboiak hatz erakuslea, agintzekoa. Honekin eragin omen lezake dirua etor dadila Garaia berrikuntza gunerako. Datorrenean sinetsiko dut. Eta bitartean, hainbeste miresten dudan proiektuak merezi zuen aitaponteko aproposagorik, Nobel saridunen bat, edo telematika arloko gururen bat.

Ezker eskua interesatzen zait gehiago. Hatz txikian janzten du borboiak eraztun bat, jendetza agurtzerakoan nabarmentzen dena. Jendetzarik ez, eta ez zuen askorik astindu behar izan Arrasaten, ezin ikusi efektua. Erdiko hatza, berriz, agur berezitarako erabiltzen du, Gasteizen bezala. Nik ere badudanez hatz hori, nengoen tokitik itzuli nion agurra borboiari, Uribarrin zebilela. Eta, protokoloa beteta, ondo sentitu nintzen, egun batez errege.

MIKEL IRIZAR

marrubi
zerkaostetako gutiziak
zerkaosteta 16, arrasate • www.marrubi.com